

# PISA- L

PROBAKO HIZKUNTZAK  
NAZIOARTEKO EBALUAZIOETAKO EMAITZETAN DUEN  
ERAGINARI BURUZKO IKERLANA.

HEZKUNTZA ELEBIDUNEKO PROGRAMETAKO  
IKASLEEN EMAITZAK. D EREDUA.

ISEI-IVEI



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA



OECD  
PISA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

## 2012KO MARTXOA

### ISEI-IVEI

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias, 9 - 3.a - 48015

[info@isei-ivei.net](mailto:info@isei-ivei.net) - [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

Ikerketaren txosten hau **Araceli Angulok, Amaia Arregik eta Alicia Sáinzek** egin dute, **Eduardo Ubietaren** aholkularitza teknikoa izanik. Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeko (ISEI-IVEI) zuzendaritza-taldeak dokumentua gainbegiratu eta onetsi du eta Batzorde Zientifikoak gainbegiratu du 2011ko irailaren 23an eta 2012ko martxoaren 23an egindako bileretan.

Halaber, proiektuaren garapenean parte hartu duten ISEI-IVEIko teknikarien laguntza eta lankidetzaz eskertu behar da, dokumentua sortze aldera beren lana funtsezkoa izan baita.



# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA.....</b>	<b>1</b>
<b>2. IKERLANAREN HELBURUAK ETA HIPOTESIAK.....</b>	<b>5</b>
<b>3. AUZIAREN NONDIK NORAKOA</b>	
<b>3.1. IKERLANA</b>	
3.1.1 Nazioarteko ikerlanak .....	7
3.1.2 Euskadiko ikerlanak .....	13
<b>3.2. EUSKADIN EGINDAKO EBALUAZIOAK</b>	
3.2.1 Lehen hezkuntzaren ebaluazioa 2004.....	16
3.2.2 PISA ebaluazioak (2003-2006-2009) .....	17
3.2.3 TIMSS ebaluazioak (2003 y 2007) .....	20
3.2.4 Ebaluazio diagnostikoak (2009-2010-2011).....	22
<b>3.3. EGINDAKO EBALUAZIOETAN PROBAKO HIZKUNTZA IZAN DUEN EGINARI BURUZKO ONDORIOAK.....</b>	<b>29</b>
<b>4. PISA-L IKERLANAREN METODOLOGIA</b>	
<b>4.1. PROBAREN ETA GAUZAPENAREN DESKRIBAPENA.....</b>	<b>31</b>
<b>4.2. LAGINAREN DESKRIBAPENA.....</b>	<b>32</b>
<b>5. PISA-L IRAKURKETA-PROBAKO EMAITZEN ANALISIA</b>	
<b>5.1. PISA-L IKERLANA .....</b>	<b>36</b>
<b>5.2. IKASLEEN EMAITZEN ARTEKO KONPARAZIOA ETXEKO HIZKUNTZAREN ARABERA.....</b>	<b>41</b>
<b>6. ERANSKINAK</b>	
<b>6.1 PISA 2009. IRAKURKETAKO EMAITZAK .....</b>	<b>43</b>
<b>7. BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>45</b>



## I. SARRERA

Euskadiko hezkuntza sistemaren ezaugarriak nagusienak bere heterogeneotasuna eta bere irakasteredu elebidunetan gertatzen diren hizkuntza-egoeren eta eskola-egoeren aniztasuna dira.

Euskadiko hezkuntza sistema honako irakasteredu elebidun hauetan oinarritzen da:

- *A eredu*: irakas-hizkuntza gaztelania da, eta euskara, curriculum arlo bat.
- *B eredu*: bi hizkuntzak erabiltzen dira irakas-hizkuntza bezala. Egoera honetan aniztasun handia dago ikastetxe batetik bestera.
- *D eredu*: irakas-hizkuntza euskara da, eta gaztelania, curriculum arlo bat.

Irakasteredu horietan<sup>1</sup> ikasleen parte baten irakas-hizkuntza etxeko hizkuntza da, A eta D ereduak kasu, A ereduiko ikasle gehienak eta D ereduiko ikasleen parte bat egoera horretan baitaude. B eta D ereduetan eskolatutako ikasleen ehuneko askoz handiago baten kasuan, irakas-hizkuntza eta etxeko hizkuntza ezberdinak dira.

Egoera horiek kontuan izanik, komenigarri deritzogu txosten honetan behin eta berriro erabiliko diren zenbait kontzeptu argitzeari:

- **Etxeko hizkuntza (1H)**: familiaren ingurunean komunikatzeko normalean (beti edo ia beti) erabiltzen den hizkuntza edo hizkuntzak. Ikasleek gehien erabiltzen duten hizkuntzat hartzen da.
- **Eskola-hizkuntza edo irakas-hizkuntza (2H)**: ezagupenak jasotzeko erabiltzen den hizkuntza; ikaste-irakaste prozesua garatzeko lehentasunezko hizkuntza.
- **Probako hizkuntza**: ikasleak ebaluazio bateko probari erantzuteko erabiltzen duen hizkuntza.

Euskal Autonomia Erkidegoak hezkuntza sistemaren ebaluazioetan (erkidegoa baino esparru handiagoko nazioarteko edo estatuko ebaluazioetan) parte hartu ohi du. Ebaluazio horietan emaitzak beste hezkuntza sistema batzuetakoekin konparatzen dira, eta, probak diseinatzeko prozesua konplexua denez, normalean talde tekniko batek diseinatzen ditu, ebaluazioetan parte hartzen duten herrialde edo erkidegoen adostasunarekin.

Proba horiek ez daude bereziki pentsaturik hezkuntza sistema elebidunetan egiteko, eta, beraz, ez dituzte kontuan izaten sistema elebidunen eta elebakarren artean izaten diren ezberdintasun nabarmenak, are gutxiago hizkuntzetako bat normalizazio bidean duten sistema elebidunen kasuetan.

Horrelako ebaluazio askotan, batez ere nazioartekoetan, itemek edo galderek hizkuntza-eduki handia izan ohi dute, hau da, adierazpenak edo testuak luzeak eta konplexuak izaten dira eta, hainbat kasutan, erantzunak irekiak izaten dira, ikasleak idatziz sortu behar dituenak.

<sup>1</sup> Irakastereduak garatzeko formula batzuk daude, adibidez, A edo B eredu indartuak, euskarak curriculum-arloen garapenean duen garrantziaren arabera, handiagoa ala txikiagoa; D ereduan atzerriko hizkuntza irakas-hizkuntza bezala sartzea, eta abar.

Horren ondorioz, hizkuntza-gaitasunak kutsatu egiten ditu probak, bai Zientziakoak, bai Matematikakoak eta baita, jakina, Irakurketakoak ere.

Errendimendu-proba horiek jatorriz, gehienetan, ingelesez edo frantsesez diseinatzen dira, eta gero itzuli behar izaten dira. Itzulpena zuzena bada ere, batzuetan itzultzean egitura eta hiztegi formalegiak erabiltzen dira, eta horren ondorioz bukaerako testuak linguistikoki jatorrizko testuak baino konplexuagoak izan daitezke, areago oraindik normalizazio bidean dauden hizkuntzen kasuan. Nazioarteko erakundeek itzulpen-kontrolak finkatzen dituzten arren, datu urriak ditugu itzulpenaren hizkuntza-alderdiek ebaluazioetako emaitzetan duten eraginari buruz.

Pertsona baten hizkuntza-gaitasunak edozein ikaste-jardueraren gauzapenean duen eragina nabarmena izanik, eragina askoz handiagoa izango da hezkuntza sistema elebidunetan, ikaste-prozesua, oso-osorik edo parte batean, ikaslearen etxeko hizkuntza ez den hizkuntza batean gauzatzen baita.

Eskolatze elebidunaren bereizgarri hori aintzat harturik, eta ikasleek eskuratutako ezagupenak egokien zein hizkuntzatan adieraz ditzaketen ezagutzeko asmoz, Euskadik PISA 2009 ebaluazioan oinarritutako PISA–L ikerlanean parte hartu zuen Luxenburgorekin batera.

Luxenburgoko hezkuntza agintariak 2000. urtean, PISA 2000<sup>2</sup> ebaluazioko emaitzen txostenean, ikasleen errendimendu apala hizkuntzaren hipotesiari leporatzen zioten, honako hau aipatzen zutelarik:

*“Beste herrialde batzuetako ikasleekin konparaturik, gure ikasleek euren etxeko hizkuntza ez den hizkuntza batean lan egin behar dute. Behar bada Luxenburgoko ikasleen emaitza apalak hein batean eskolatzearen hasieratik bi hizkuntza batera ikasi behar izatearen ondorio dira. Hala eta guztiz ere, horrek adierazten du gure ikasleek ezagupenak aplikatzen ez dakitela edo ez dutela ikasi. Luxenburgoko emaitzen eta ELGAko batezbesteko emaitzen arteko aldea oso kezagarria da. Adibidez, irakurketan, Luxenburgoko ikasleen % 1,7k bakarrik lortu du konpetentzia-mailarik altuenean (5/5) egotea, ELGAko batez bestekoa % 10 inguru altuagoa izan delarik. Luxenburgoko ikasleen % 35 oinarritzko gaitasunei dagokien konpetentzia-mailarik apalenean daude (1/5). Aipatu beharrekoa da, baita ere, konpetentzia-mailarik apaleneko ehuneko hori (% 35) ELGAko gainontzeko herrialdeetako batez besteko ehunekoa (% 18,3) baino bi aldiz handiagoa dela”.*

Ildo beretik, Kanadako British Columbiako Hezkuntza Ministerioak<sup>3</sup>, Gizarte Zientzietako ebaluazioetan errendimendu aplikatuari buruz egindako ikerlan baten ondorioetan honako hau adierazi du:

*“Oro har, frantseseko murgilketako ikasleek Gizarte Zientzietan izaten duten errendimendua ama-hizkuntzan (frantsesa) ikasten duten ikasleen errendimendua baino apalagoa izaten da. Errendimendu-alderik handienak 4. mailan gertatzen dira, errendimendu orokorra programa arruntetako ikasleen errendimendua baino % 11 inguru apalagoa baita. Alde hori % 6ra jaisten da 7. mailarako, eta % 5era 10. mailarako. (...) Hala ere, beste ikerlan batzuek ondorioztatzen dute, hizkuntza-zama handia duten gaitetan, Historia kasu, probako hizkuntzak eragin egiten diola frantseseko murgilketako ikasleen errendimenduari. (...) Horrek iradokitzen du frantseseko murgilketako ikasleek probak frantsesez egiten dituztenean ez direla gai izaten euren ezagupenak eta trebetasunez oso-osoa erakusteko”.*

<sup>2</sup> PISA 2000. Comparaison international des competences des élèves. Rapport national. Luxembourg. Ministère de l'Éducation nationale, de la Formation professionnelle et des Sports.

<sup>3</sup> Ministry of Education of British Columbia “1996” Social Studies in British Columbia: Results of the Provincial Learning Assessment. [www.bced.gov.bc.ca/assessment/social](http://www.bced.gov.bc.ca/assessment/social)

Euskadin, kanpo-ebaluazioetan etxekoaz bestelako hizkuntza bat erabiltzeak emaitzetan izan zezakeen eraginaren garrantziaz oharturik, eta batez ere ikasleek eskuratutako ezagupenak eta trebetasunak oso-osoan adierazteko zuten gaitasunaren garrantziaz oharturik, Hezkuntza Sailak 2004. urtean “*Probako hizkuntzak ebaluazioen emaitzetan duen eragina. Irakaskuntza elebiduneko ikasleek nazioarteko probetan duten errendimenduari buruzko ikerketa*”<sup>4</sup> gauzatu zuen Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI-IVEI) bidez.

PISA 2009 ebaluazioko konpetentzia nagusia Irakurketa izan zenez, interes handikotzat jo zen hasierako ikerketa hura aurrera eramatea, ondorio berdinak aterako ote ziren egiaztatu ahal izateko<sup>5</sup>.

Harrez geroztik, geroago ikusiko den bezala, gai horri buruzko hainbat analisi gauzatu dira egindako ebaluazio ia guztietako datuetan oinarriturik. Emaitzak ikerlan honetan jasotzen dira PISA-L ikerlaneko emaitzekin konparatu ahal izateko.

PISA-L (Probako hizkuntzak nazioarteko ebaluazioetako emaitzetan duen eraginari buruzko ikerlana. Hezkuntza elebiduneko programetako ikasleen emaitzak) ikerlana PISA 2009 ebaluazioaren esparruaren barruan planteatzen den proiektua da, eta bere helburua ikasleek euren ezagupenak eta konpetentziak ondoen eta egokien zein hizkuntzatan adieraz ditzaketen aztertzea da. Ikerlana gauzatzeko ISEI-IVEI bat egin zen Luxenburgok PISA ebaluazioetako materialak sortzen eta datuen analisia egiten dituen ACER enpresari proposatutako ikerlanarekin.

---

<sup>4</sup> ISEI-IVEI (2004) Probaren hizkuntzak ebaluazioen emaitzetan duen eragina. Irakaskuntza elebiduneko ikasleek nazioarteko probetan duten errendimenduari buruzko ikerketa. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

<sup>5</sup> Ondorio horien garrantziaz ohartzeko, kontuan izan behar da euskal ikasleek nazioarteko eta estatuko ebaluazioetan zein hizkuntza erabili behar zuten erabakitzeke erabili zirela.





## 2. IKERLANAREN HELBURUAK ETA HIPOTESIA

PISA 2009 ebaluazio estandarizatuaren gai nagusia 15 urteko ikasleen irakurketarako kompetentzia izan zen. Ikerlan hau ebaluazio hartan oinarrituta dago, eta bere helbururik behinena, D eredu ikasleen ehuneko handi batentzat bigarren hizkuntzako murgiltze irakasteredua izanik, eredu horretako ikasleen errendimendua proba egiteko erabiltzen duten hizkuntzaren arabera nola aldatzen den sakonkiago aztertzea da.

Ikerlanak galdera honi erantzun nahi dio:

*Zein hizkuntzatan ebaluatu behar da hizkuntza-murgiltze programa bateko ikaslea kanpo ebaluazio batean, estatukoa zein nazioartekoa, bere benetako kompetentzia-maila ezagutu ahal izateko?*

Hona hemen ikerlanaren helburuak:

- Probako hizkuntza eta ikasleen etxeko hizkuntza bat bera izateak edo ez izateak irakasteredu elebidunetako ikasleen irakurketako errendimenduari eragin egiten diola egiaztatzea.
- Ikerlanean lortutako emaitzak euskal hezkuntza sistema barruan eta kanpoan aurretiaz egindako beste ikerketa batzuekin konparatzea.

Askotariko ikertzaileek ikerlanen eta azterlanen bidez formulatutako hipotesia ISEI-IVEIk 2004an egindako ikerlanak baieztatu zuen, eta honela dio:

- *Ikaslearen etxeko hizkuntza eta proban erabili behar duen hizkuntza bera denean, ikaslea eskuratutako ezagupenak modu osoagoan adierazteko gai izaten da proban etxekoaz bestelako hizkuntza bat erabili behar duenean baino.*

Hipotesia egiaztatzeko, D ereduko ikasleen irakurketarako kompetentzia neurtzen duten ebaluazioetako datuak aztertu dira <sup>6</sup> honako hau egiaztatzeko:

- D ereduko ikasleek PISA ebaluazioetan irakurketarako kompetentzian lortzen dituzten emaitzak hobeak izango dira probak ikasleek proba horietan etxeko hizkuntza erabiltzen badute:
  - Etxeko hizkuntza gaztelania duten D ereduko ikasleen emaitzak hobeak izango dira probak gaztelaniaz egiten badute.
  - Etxeko hizkuntza euskara duten D ereduko ikasleen emaitzak hobeak izango dira probak euskaraz egiten badute.

Hipotesia honako premisa honetatik oinarritzen da: ikaslea gai da bigarren hizkuntza bat ikasteko, baina ikasitakoa hobeki adierazten du etxeko hizkuntzan, hizkuntza-gaitasun handiagoa duelako. Zenbait ikerketaren ondorioek diotenez, bigarren hizkuntza bat ikasteak eta garatzeak hizkuntza horretan 7 urteko murgilketa eskatzen du, eta gehiago oraindik hizkuntza horretako hitzun arrunten kopurua ingurunean txikia baldin bada eta zenbait testuinguru sozio-linguistikotan hizkuntzetako bat ez dagoela normalizaturik kontuan hartzen bada.

---

<sup>6</sup> Ikasle batek lortutako emaitza ezberdinen artean, emaitzarik onenak adierazten du ikaslearen kompetentzia.



### 3. EGOERAREN NONDIK NORAKOAK

Jarraian gaiaren inguruko nazioarteko zenbait ikerketa, ebaluazio eta azterlan aurkezten dira. Euskadik horietako batzuetan parte hartu du, eta beste barne ikerketa batzuk ere egin ditu probako hizkuntzak ikasleen errendimenduan zer nolako eragina duen aztertzeko. Ikerketa batzuetan bigarren hizkuntzaren ikaskuntzari eragiten dioten beste aldagai batzuk azpimarratzen dira, eta, ikerlan honen helburu zuzena ez diren arren, egokitzat hartu dira hezkuntza sistema elebidunen analisi orokorra egiteko.

#### 3.1. IKERLANAK

##### 3.1.1 Nazioarteko ikerlanak

**Carol Ascher** (1990)<sup>7</sup>, Estatu Batuetako ikasle elebidunak kokatzeko ebaluazio probak aztertzekoan, probak egoki itzultzeko zailtasunean oinarritzen da: itzulpena egokia izateko probak berdin neurtu behar du bi hizkuntzetan, bai fidagarritasunaren aldetik, baita balioduntasunaren aldetik ere. Honako hau ere esaten du: *“ikasle elebidunek etxekoaz bestelako hizkuntzan astiroago prozesatzen dute informazioa, eta horren ondorioz testari erantzuteko abiadura motelagoa izaten dute”*.

Autore horren ustez, ikasle elebidunak ebaluatzeko etxekoaz bestelako hizkuntza bat erabiltzea erabakitzen denean, honako hau hartu behar da kontuan:

- Probak gauzatzeko denbora luzeagoa behar izaten dute, denbora gehigarri hori hizkuntzen arteko interferentziaren arabera aldatzen delarik.
- Probek etxeko hizkuntza erabiltzen duten ikasleen alde jokatzeko dute.
- Ikasleak bigarren hizkuntzan eroso sentitzeko denbora luzea behar izaten du, zazpi urte baino gehiago agian.

Texas Education Agency erakundearen uste sendoaren arabera (2000)<sup>8</sup> errendimendu-test bat, praktikan, hizkuntza-proba bihur daiteke, eta proba etxekoaz bestelako hizkuntza batean egiten duten ikasleen errendimenduan eragin handia izan dezake. Estatu Batuetan zalantza eta zailtasun handiak izaten dituzte ebaluazio horiek etxeko hizkuntza ingelesa ez duten ikasleekin erabiltzerakoan. Estatuak askotariko konponbideak proposatzen dituzte. Ikerlan horretan zenbait alderdi azpimarratzen dira, eta ikasleak etxekoaz bestelako hizkuntza batean ebaluatzeak emaitzak pobretu egin ditzakeela baieztatzen dute; gainera, hizkuntzaren erabilera askotan gizarte-egoerei loturik (etxeko hizkuntza, harremanetarakoa, ikastekoa) joaten denez, hizkuntza batean edo bestean neurtzen den gaiaren arabera, ikasleen emaitzak ezberdinak izango dira, testaren hizkuntza bateko bertsioak eta beste hizkuntza bateko bertsioak ez dituztelako derrigorrez trebetasun berak neurtzen beti.

Ildo beretik, **Stubbe Kester** eta **E.D. Peña** (2002)<sup>9</sup> ikertzaileek esaten dute itzultzen diren testek oro har ez dituztela ezaugarri psikometrikoak gordetzen: zailtasuna, itemaren diskriminazioa, fidagarritasuna eta balioduntasuna. Artikuluan oinarritzko beste aspektu bat ere azpimarratzen dute: ikasle elebakarren eta elebidunen arteko konparazioak egitea oso konplexua dela, batez ere hizkuntzari lotutako aspektuak neurtzen dituzten ebaluazioetan.

<sup>7</sup> Ascher, Carol (1990): “Assesing Bilingual Students for Placement and Instruction”. ERIC/CUE Digest n° 65. Claeringhouse on Urban Education, New York, N.Y.

<sup>8</sup> Texas Education Agency (2000): *Study of possible expansion of the assessment system for limited english proficient students*. A report to the 77<sup>th</sup> Texas Legislature from the Texas Education Agency. December 1, 2000.

<sup>9</sup> Stubbe Kester, E y Peña A.D. (2002): *Language ability assessment of Spanish-English bilinguals: future directions Practical Assessment. Research & Evaluation*, vol 8 (n°4).

Aztertutako ikerlan eta azterketen artean, helburuen eta planteamenduen aldetik ikerlan honetatik hurbilena Kanadako **Albertako Hezkuntza Ministerioak** probako hizkuntzari buruz egindakoa da<sup>10</sup>. Kanadako probintzia horretan, Ministerioak frantses hizkuntzako murgiltze programak antolatu ditu etxeko hizkuntza, frantsesa barik, ingelesa duten ikasleentzat. Ikerlanak bi galdera hauei erantzun nahi die:

- Zein hizkuntzatan ebaluatu behar dira frantseseko murgiltze programetako ikasleak?
- Nola interpretatu daitezke ebaluazioetako emaitzak fidagarritasun eta balioduntasun handiagoaz?

Argitalpen horretan 3. eta 6. mailako ikasleei (Lehen Hezkuntza) eta 9. mailakoei (Bigarren Hezkuntza) egindako ebaluazio orokorraren emaitzak eta ondorioak jasotzen dira. Ebaluazioa hurrenez hurreneko hiru urtetan egin zen (1989tik 1991ra) probako hizkuntzaren eragina aztertzeko asmoz.

1991n egindako ikerlan horretan Zientzian 3. mailako 466 ikasle ebaluatu zituzten, Matematikan 6. mailako 576 ikasle, eta Gizarte Zientzietan 9. mailako 517 ikasle. Ikasle guztiak frantseseko murgiltze programetan ikasten zuten, eta etxeko hizkuntza ingelesa zuten. Proba berberak erabili zituzten frantsesez eta ingelesez, eta ikastalde bakoitzeko ikasleak ausaz banatu zituzten bi hizkuntzen artean.

Ebaluazioak honako *emaitza* hauek eman zituen:

- 3. maila, Zientzia: proba frantsesez egin zuten ikasleek ingelesez egin zutenek baino emaitza nabarmenki apalagoak lortu zituzten; eta baita Alberta probintzia osoko batez besteko emaitza orokorra (proba ingelesez egin zuten) baino apalagoak ere.
- 6. maila, Matematika: proba frantsesez egin zuten ikasleek ingelesez egin zutenek baino emaitza nabarmenki apalagoak lortu zituzten; hala ere, Alberta probintzia osoko batez besteko orokorra baino nabarmenki hobekak izan ziren.
- 9. maila, Gizarte Zientziak: proba frantsesez egin zuten ikasleek ingelesez egin zutenek baino emaitza nabarmenki apalagoak lortu zituzten; hala ere, Alberta probintzia osoko batez besteko orokorra baino nabarmenki hobekak izan ziren

Ikerlan horretan *ondorio* hauek atera ziren:

- “Probak ingelesez egin dituzten ikasleen puntuazioak tinkoak dira eta probak frantsesez egin dituzten ikasleenak baino nabarmenki altuagoak”.
- “Frantseseko murgiltze programetan eskolatutako ikasleek ebaluatutako arlo guztietan emaitza orokor onak dituzte, baina frantsesez ebaluatzen direnean ez dituzte euren ezagupen eta trebetasun guztiak erakusten, ez ingelesez ebaluatzen direnean bezain egoki”.

2002ko urtarrilean eta otsailean egindako ikerketa batean, Esther Sui-chu Ho eta Evelyn Yee-fun Man irakasleek **HK-PISA**<sup>11</sup> izeneko azterketa gauzatu zuten 15 urteko ikasleekin PISA 2000 Irakurketa, Zientzia eta Matematikako ebaluazioan oinarriturik. Azterketaren helburua Hong-Kongeko ikastetxeetako ikasleek ebaluazioetan 1H (txinera) eta 2H (ingelesa) erabiltzen

<sup>10</sup> Alberta Education (1992): Language of Testing Study Report. Edmonton: Alberta Education, Students Evaluation Branch.

<sup>11</sup> Esther Sui-chu Ho eta Evelyn Yee-fun Man, “Student Performance in Chinese Medium-of-Instruction (CMI) and English Medium-of-Instruction (EMI) Schools: What We Learned from the PISA Study” Faculty of Education. Hong Kong Institute of Educational Research. The Chinese University of Hong Kong.

ISEI-IVEIko dokumentuak: “Resultados de los alumnos de escuelas cuya lengua de instrucción es el chino (CMI) y de las escuela en las que la lengua de instrucción es el inglés (EMI) Qué hemos aprendido del estudio PISA. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

zutenean lortzen zituzten emaitzen arteko aldea aztertzea zen. Gizarte eta hezkuntza sistema hartan hizkuntza nagusia eta ingurunean erabiliena txinera da, eta bigarren hizkuntza, ingelesa.

Hizkuntzaren ikuspuntutik, mota batzuetako ikastetxeak daude herrialde hartan:

- EMI ikastetxeak (irakas-hizkuntza: ingelesa)
- CMI-altuko ikastetxeak (irakas-hizkuntza: txinera; gaitasun handiko ikasleak)
- CMI-ertaineko ikastetxeak (irakas-hizkuntza: txinera; gaitasun ertaineko ikasleak)
- CMI-baxuko ikastetxeak (irakas-hizkuntza: txinera; gaitasun apaleko ikasleak)
- nazioarteko ikastetxeak, hiru geruzatakoak: estatukoak, diru laguntza jasotzen dutenak eta independenteak.

Azterketarako laginketa estratifikatua erabili zen, ELGAko prozedurek finkatzen duten bezala. Azterketa 28 EMI ikastetxetan (irakas-hizkuntza, ingelesa) gauzatu zen, eta ikasleak ebaluatzeko PISA 2000 ebaluazioko liburuxken bi bertsio (txinerazkoa eta ingelesezkoa) erabili ziren. Lortutako emaitza honako hau izan zen:

*“Irakurketako batez besteko ehuneko puntuazioa 62,15 izan zen txinerazko bertsioa erabili zuten ikasleen kasuan, eta 48,57 ingelesezko bertsioa erabili zuten ikasleen kasuan. Matematikako batez besteko ehuneko puntuazioa 55,76 izan zen txinerazko bertsioa erabili zuten ikasleen kasuan, eta 62,20 ingelesezko bertsioa erabili zuten ikasleen kasuan. Zientziako batez besteko ehuneko puntuazioa 54,21 izan zen txinerazko bertsioa erabili zuten ikasleen kasuan, eta 45,48 ingelesezko bertsioa erabili zuten ikasleen kasuan. Datuek adierazten dute probako hizkuntza bezala ingelesa erabiltzean ikasleak kalteturik atera zirela, baina txinera, etxeko hizkuntza, erabiltzeak mesede egin ziela Irakurketan eta Zientzian”.*

Ondoren, zenbait ikasle hautatu zituzten 28 EMI ikastetxeetatik, eta probako hizkuntza bakoitzean lortutako emaitzak konparatu zituzten. Honako ondorio hau atera zuten:

*“Ikasleek hiru arloetan emaitza nabarmenki hobek lortzen zituzten proba txinerazko bertsioarekin egin zutenean ingelesezko bertsioarekin egiten zutenean baino. Aldeak nahiko handiak dira Irakurketan eta Zientzian, eta nahiko txikiagoak Matematikan”.*

Ikasleak ikastetxe beretakoak zirenez, eta beraz, teoriarik, antzeko gaitasun mailakoak, ikertzaileek ondorioztatu zuten Irakurketako, Matematikako eta Zientziako benetako kompetentzia, proba 2Hn egin zuten ikasleen kasuan, agian gutxietsi egin zela, eta Cumminsek (1989)<sup>12</sup> esan zuen bezala, honako hau erantsi zuten: *“batzuetan 2Hn egiten diren probek ez dute erakusten ikasleen benetako gaitasuna, eta bidegabekoak izan daitezke. 2H oztopo handia izan daiteke ikasle gehienentzat (EMI ikastetxeetakoentzat ere) testuak ulertzerakoan, edukia interpretatzerakoan eta euren ideiak eta erantzunak adierazterakoan”.* Ondorio horiek aintzat harturik, nazioarteko ebaluaziorako probako hizkuntza bezala IH, txinera, aukeratu zuten, etxeko hizkuntza ingelesa zuten eta nazioarteko ikastetxeetan eskolaturik zeuden ikasleen kasuan izan ezik.

Ikerlanetatik atera zituzten ondorioz garrantzitsuenak hauek izan ziren:

- Lehenengo eta behin, hizkuntza-zama handia duten arloetan, Irakurketan eta Zientzian, ikasleen errendimendua askotan gutxietsi egiten da proba ingelesez (2H) egiten dutenean. Horren arrazoia ikasleek lehenengo hizkuntzan (IH) bigarrean (2H) baino gaitasun handiagoa izatea da. Proban IH erabiltzetik 2H erabiltzera dagoen aldea nabarmenki txikiagoa izaten da irakasmaitetan gora joan ahala.

<sup>12</sup> Cummins, J (1989) *Empowering minority students*. Sacramento, CA: California Association for Bilingual Education.


- Bigarren, oso kezkarria da EMI ikastetxeetako 15 urteko ikasleak azterketetan ingelesa kompetentziaz erabiltzeko gai izan ez daitezela.

Bigarren ondorioari dagokionez, zenbait ikertzailek, adibidez Cummins (1989)<sup>13</sup>, iradoki zuten elebitasun gehiagarriak etekinak emateko bostetik zazpira bitarteko hezkuntza urte behar direla irakas-hizkuntza 2H delarik. Beste ikertzaile batek, Johnson (1997)<sup>14</sup>, aurreikusi zuen irakas-hizkuntzat ingelesa duten ikasleek F5 irakasmilaren bukaerarako (DBHO, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko I. maila) irakas-hizkuntza bezala txinera erabiltzen duten ikasleen maila lor dezaketela. Eta ikerketaren emaitzek hala baieztatu zuten. Badirudi eskolatze urteak aurrera joan ahala probako hizkuntza 1H izatetik 2H izatera dagoen errendimendu-aldea murrizteko joera dagoela.

Nazioarteko ikerketen artean, berriena **Luxenburgok PISA 2009** esparruan Euskadirekin batera egindakoa da. Ikerketa osagarri horri **PISA-L** izena eman zaio eta ikerlan honen gai nagusia da. Eskuragarri ditugun datuek ez dute aukerarik ematen herrialde hartako emaitzak zehatz-mehatz aztertzeko, baina bai hango egoera sozio-kulturalak eta Euskadikoak oso ezberdinak direla ikustekoa.

Hona hemen bi egoera horien zenbait bereizgarri<sup>15</sup>:

- Luxenburgoko biztanleen % 43 etorkina da; etorkin talderik handiena portugaldarrak dira, eta bigarrena frantsesak. Biztanleria etorkin horren parte batentzat, hezkuntza sistema elebiduneko bi hizkuntzak bigarren hizkuntzak izan daitezke.
- Ondorengo grafikoa PISA-L ikerlanean parte hartu duten ikasleen banaketa azaltzen da ikasleen etxeko hizkuntzaren arabera.



<sup>13</sup> Cummins, J (1989) *Empowering minority students*. Sacramento, CA: California Association for Bilingual Education.


<sup>14</sup> Johnson, R.K. (1997) The Hong Kong education system: Late immersion under stress. In R.K. Johnson & M.Swain (Eds), *Immersion education: International perspectives* (pp171-189). Cambridge; New York: Cambridge University Press.

<sup>15</sup>Ministère de l'Éducation nationale et de la Formation professionnelle. Service de Coordination de la Recherche et de l'Innovation Pédagogiques et Technologiques (SCRIPT) et Université du Luxembourg. Unité de Recherche EMACS (dezember 2010) PISA 2009. Nationaler Bericht Luxemburg.

- Hizkuntza nagusia luxenburgera da (aleman garaiaren jatorrikoa).
- Luxenburgotarrentzat alemana nahiko ulergarria izaten da. (Berg et al., 2009, 28. or)
- Luxenburgoko hezkuntza sistema hirueleduna da (luxenburgera-alemana-frantsesa). Derrigorrezko Haur Hezkuntzako hasierako bi irakasmailetan irakas-hizkuntza luxenburgera da. Gero alemana sartzen da ikastetxeetan, eta azkenik apurka-apurka, frantsesa.
- Alfabetatzeko hizkuntza alemana da eta 5. mailara edo 9. mailara (ikasle gehienak 15 urtekoak) arte irakas-hizkuntza nagusia da.
- Luxenburgoko ikasleek PISA 2009 ebaluazioan probako hizkuntza aukeratu ahal izan zuten (alemana ala frantsesa), etxeko hizkuntza edozein izanik ere:
  - Ikasleen % 80k alemana aukeratu zuten; gehienen etxeko hizkuntza luxenburgera edo alemana zen. Ikasle horien % 13ren etxeko hizkuntza erromaniko bat zen, eta % 7rena beste hizkuntza bat.
  - Ikasleen % 20k frantsesa aukeratu zuten (ikasle horien % 75en etxeko hizkuntza erromaniko bat zen, eta % 6rena beste hizkuntza bat).

PISA-L ebaluazioaren bigarren egunean, ikasleen parte batek proba beste hizkuntzan egin zuten, hots, PISA 2009 ebaluaziorako aukeratu ez zuten hizkuntzan. Grafikoan ikus daitekeenez, ebaluazioaren bi egunetako emaitzek honako hau adierazi zuten:


- *Etxean alemana erabiltzen zuten ikasleek emaitza hobeak lortu zituzten proba alemanez egin zutenean. Aldea 41 puntukoa izan zen (495 alemanez eta 454 frantsesez).*
- *Etxean hizkuntza erromaniko bat erabiltzen zuten ikasleek proba frantsesez egin zutenean emaitza apur bat hobeak lortu zituzten alemanez egin zutenean baino. Aldea 8 puntukoa izan zen (459 eta 451 hurrenez hurren). Kontuan izan behar da ikasle horien kasuan bi hizkuntza horiek bigarren hizkuntzak izan daitezkeela.*



Grafikoaren azalpenean etxeko hizkuntzak aipu marken artean jarri dira, "alemanaren" barruan luxenburgera baitago, eta "erromanikoaren" barruan jatorri horretako zenbait hizkuntza baitaude, zehaztu gabe.

**Kontrol-taldeko eta talde esperimentaleko emaitzak PISA 2009 eta PISA-L ebaluazioetan**

Jarraian PISA 2009 eta PISA-L ebaluazioetako emaitzak azaltzen dira. Emaitzak Luxenburgoko ikasleenak dira, PISA-L ebaluazioaren bigarren egunean kontrol-taldeetan eta talde esperimentaletan banaturik lortutakoak.

**PISA 2009 eta PISA-L. Kontrol-taldeetako eta talde esperimentaletako emaitzak**

PISA-L ebaluazioaren bigarren eguneko emaitzak lehen egunekoak baino apalagoak izan ziren talde guztietan, baita lehen egunean (PISA 2009) erabilitako hizkuntza bera erabili zuten taldeetakoak ere. Bigarren egunean hizkuntza aldatu zuten taldeek, talde esperimentalek, lortu zituzten emaitzarik apalenak PISA-L ebaluazioan.

Txostenaren 3.4 azpiatalean ikerlanaren emaitzak azaltzen dira, eta ikerlanaren laburpen gisa honela dio:

- “PISA 2009 nazioarteko ebaluazioa alemanez egitea erabaki zuten eta PISA-L (aleman-frantses taldea) nazio mailako ebaluazioan frantsesez ebaluatu ziren ikasle gehienak bertako familietako seme-alabak ziren, hein handi batean etxean luxenburgeraz hitz egiten zutenak. Irakurmenean, talde horrek askoz kompetentzia-maila altuagoa erakutsi zuen alemanez (495 puntu) frantsesez baino (417 puntu), jaioterria, sexua edo hezkuntza mota edozein zelarik ere. Hizkuntzen arteko kompetentzia-aldea ikasturte oso batekoa zen”.
- Ebaluazioa frantsesez egitea erabaki eta PISA-L (frantses-aleman taldea) nazio mailako ebaluazioan alemanez ebaluatu ziren ikasle gehienak “atzerriko” familietako seme-alabak ziren, etxean hizkuntza erromaniko batez hitz egiten zutenak. Proba frantsesez egin zutenean 30 puntu gehiago lortu zituzten.



### 3.1.2. Euskadiko ikerlanak

Euskadin ikerlan batzuk egin dira ebaluazioko testuak itzultzeak ikasle elebidunen emaitzetan izaten duten eragina aztertzeko, besteak beste, Paula Elosua, Alicia López eta Josu Egaña irakasleek Euskal Herriko Unibertsitatean egindakoa, **“Idioma de aplicación y rendimiento en una prueba de comprensión verbal”**<sup>16</sup>. Ikerlanaren helburua ebaluazioak jasotzaileen hizkuntza nagusia ez den hizkuntza batean egitearen eragina aztertzea zen, hain zuzen ere, beste hizkuntza batean egiteak eta proba euskarara moldatzeak errendimenduan eta baliokidetasunean zuen eragina. Ikerlanaren gaia oso espezifikoa zen arren (gaztelaniazko entzutezko ulermen), komenigarritzat jo da hemen aipatzea, *lan hipotesi* hauek planteatzen dituelako:

- a) Neurketa psiko-pedagogikoko proben hitzez hitzeko itzulpenak berez ez du bermatzen puntuazioen baliokidetasuna.
- b) Neurketa psikologikorako proba bat jasotzaileen etxeko hizkuntza ez den beste hizkuntza batean eta irakas-hizkuntzan egiteak ez du bermatzen puntuazioen baliokidetasuna.

Azterlana gauzatzeko beste ikerlan batzuetan oinarritu ziren, haien artean ebaluazio probak egin ondorengo emaitzak konparatuz ondorioak ateratzen zituztenak. Ikerlan haien ondorioen arabera, etxeko hizkuntza eta irakas-hizkuntza ezberdinak direnean, probak bigarren hizkuntza horretan egiteak ez du inolako abantailarik.

Azterlana Euskadiko Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleen artean egin zen, lagina hiru lurraldeetako hamaika ikastetxetako 1.999 ikaslek osatzen zutelarik. Lagina bi azpi-laginetan banatu zen:

- lehen azpi-lagina gaztelaniaz hitz egiten zuten ikasle elebkarrek osatzen zuten (GG)
- bigarren azpi-lagina etxeko hizkuntza bezala eta irakas-hizkuntza bezala euskara zuten ikasleek osatzen zuten (D irakasteredu elebiduna). Talde honen barruan bi azpi talde fokal bereiztu ziren:
  - EG, proba gaztelaniaz egin zuten ikasle euskaldunak.
  - EE, proba euskaraz egin zuten ikasle euskaldunak.

Ikerlanerako erabili zuten tresna “Aptitudes diferencial y general” (Yuste, 1988) azterlaneko Prueba de Comprensión Verbal (CV) probaren oinarritzko bertsioa izan zen. Euskararako egokitzapena atzerako itzulpenaren jarraibideen arabera (Brislin, 1970) egin zen.

Ikerlanetik honako ondorio hauek atera ziren:

- errendimendurik altuena GG azpi-laginak izan zuen, hots, proba gaztelaniaz egin zuten ikasle gaztelaniazko hiztunak; bigarrena, EG azpi-laginak izan zuen, hots, proba gaztelaniaz egin zuten ikasle euskaldunak; errendimendurik apalena EE (ikasle euskaldunak) taldeak izan zuen, hots, proba euskaraz egin zuten ikasleak.
- Entzutezko Ulermeneko probaren helburua gaztelaniazko hiztunengan gaztelaniazko lexikoaren ezagupena neurtzea denez, proba euskaldunek (EG) osatutako lagin batean egiten bada, ikasleen bigarren hizkuntzako lexikoaren ezagupena neurtuko du; proba (EE) azpi-taldean egiten bada, euskarazko lexikoaren ezagupena neurtuko du, baina hitzez hitz itzulitako lexikoarekin; kasu horretan ezin da bermatu jatorrizko eduki semantikoa mantentzea. Egoera horretan egokiago dirudi ikasle euskaldunak ebaluatzeko euskara erabiltzea.

<sup>16</sup> Ikus Psicothema 2000. Vol. 12, nº 2, 201-206. or.

- egokitzapena hizkuntzaren aldetik biribila izatea ez da nahikoa; horrez gain, hizkuntzaren beraren barne-ezaugarriak kontuan izan behar dira, hala nola tipografia, ortografia, morfologia, lexikoa, gramatika zuzentasuna, egokitasuna eta koherentzia eta, baita ere, baliokidetasuna hurbiltasunaren eta adierazgarritasunaren aldetik bermatzen duten dimentsio semantikoak.

ISEI-IVEIk 2004. urtean **“Probaren hizkuntzak ebaluazioen emaitzetan duen eragina”** <sup>17</sup> izeneko ikerlana egin zuen, hezkuntza elebiduneko programetako ikasleek nazioarteko ebaluazioetan zuten errendimenduari buruzko informazioa biltzeko.

Ikerlan hartarako PISA 2000 Irakurketako ebaluazioaren atal bat erabili zen D ereduko 189 ikasleek osatutako lagin txiki batean. Ebaluaziorako materiala 60 itemek osatzen zuten: 30 aukera anitzeko galderak ziren (4 aukerakoak) eta beste 30 erantzun irekiko galderak ziren (erantzuna ikasleak idatzi behar zuen).

Ikerlanaren hipotesia honako hau zen: D ereduko ikasleen kompetentziak neurtzen dituzten ebaluazioetan, etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleek proba euskaraz (2. hizkuntza) egiten dutenean emaitza apalagoak lortzen dituzte proba gaztelaniaz (1H edo etxeko hizkuntza) egiten dutenean baino.

Ikerlanak bi helburu zituen:

- alde batetik, proban erabilitako hizkuntzak irakasteredu elebidunetan (D eredua) eskolatutako ikasleen errendimenduan nolako eragina zuen aztertzea, ikasleen etxeko hizkuntza edozein zelarik ere;
- bestetik, probaren bi bertsioak jatorrizko ingelesezko testuaren itzulpenak izanik, euskarazko bertsioaren hizkuntza-zailtasuna eta gaztelaniazko bertsioaren hizkuntza-zailtasuna aztertzea eta konparatzea.

Parte hartu zuten ikasleak D eredukoak ziren eta zortzi ikastetxetakoak. 114 ikasleek euskaraz egin zuten proba, eta 75ek, gaztelaniaz. Ikasleen etxeko hizkuntzaren aldagaia hasiera-hasieratik hartu zen kontuan. Irizpide horren arabera, parte hartu zuten ikasleen banaketa honako hau izan zen:

Etxeko hizkuntza	Probako hizkuntza	
	Euskara	Gaztelania
Beti euskara	31	11
1a beti euskara	20	12
1a beti gaztelania	31	29
Beti gaztelania	32	23
<b>Guztira</b>	<b>114</b>	<b>75</b>

Lagina txikia izan zen eta errore tipikoa, beraz, handia, baina hala ere honako ondorio hauek atera ziren:

- **“Beti euskaraz” hitz egiten zutela zioten ikasleen artean ez zen alderik izan euskaraz egindako probako emaitzen eta gaztelaniaz egindako probako emaitzen artean.**

<sup>17</sup> (2004) [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net). Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) argitaratutako ebaluazioei eta ikerlanei buruzko dokumentazioa web gune honetan eskura daitezke: ([http://www.isei-ivei.net/cast/pub/EP2004\\_CAS.pdf](http://www.isei-ivei.net/cast/pub/EP2004_CAS.pdf) o [http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/EP2004\\_EUS.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/EP2004_EUS.pdf))

- *Gainontzeko ikasleek (“ia beti euskara”, “ia beti gaztelania” eta “beti gaztelania”) gaztelaniaz egindako probetan emaitza hobek lortu zituzten euskaraz egindako probetan baino.*

Ikerlanean, horrez gain, PISA 2003 Matematikako ebaluazioaren proba pilotuan lagin bezala parte hartu zuten 15 urteko ikasleen emaitzak ere aztertu ziren. Proba pilotua D ereduko ikasleek egin zuten, euskaraz bakarrik. Bildutako datuen azterketatik ondorioztatu zen etxeko hizkuntza euskara zuten ikasleek emaitza hobek (38,1) lortzen zituztela etxeko hizkuntza gaztelania zuten ikasleek baino (35,9).

Halaber, ikerlanean DBHko 2. mailako ikasleek TIMSS 2003 Matematikako eta Zientziako ebaluazioaren proba pilotuan lortutako emaitzak ere jaso ziren. Proba pilotua D ereduko 414 ikasleek egin zuten, euskaraz bakarrik. Ondorio hau atera zen:

- *Euskaraz egindako TIMSS ebaluazioaren proba pilotuan, etxean euskaraz hitz egiten zuten ikasleek etxean gaztelaniaz hitz egiten zutenek baino puntuazio hobea lortzen zutela, bai Matematikan bai Zientzian.*
- *Puntuazio-aldeak handiagoak zirela Zientzian, arlo horretako hizkuntza-zama handiagoa delako.*

Ikerlanetik ondorio orokor hauek atera ziren

- *Probako hizkuntzak badu bere eragina, askotariko etxeko hizkuntzetatik datozen ikasleak irakasteredu elebidunetan eskolatzen direnean.*
- *Irakurketako probak item luzeak eta konplexuak ditu, eta, praktikan, hizkuntzako proba da. Zientziako probarekin berdin gertatzen da.*
- *Proba hizkuntza nagusia ez den hizkuntza batean egiteak eragin handia du ikasleen errendimenduan, euren benetako ezagupenak erakusteko orduan.*
- *Batzuetan, proben egokitzapenak edo itzulpenak zailtasun gehigarri bat izaten dute, jatorrizko hiztunentzat ere normalizazio bidean dauden hizkuntzak direnean.*

Ikerlanean lortutako datuen argitan, PISA eta TIMSS ebaluazioen benetako probetan ikasle bakoitzaren hizkuntza nagusia erabiltzea erabaki zen.

PISA eta TIMSS ebaluazioen benetako probetan lortutako emaitzek honako hau erakutsi zuten:

- *Bigarren hizkuntzan eskuratutako ezagupenen transferentzia egokia izaten da lehen hizkuntzara.*
- *Euskaraz ikasten duten eta etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleek euren ezagupenak egoki adierazten dituzte etxeko hizkuntzan.*

## **EUSKADIN EGINDAKO EBALUAZIOAK**

Azken urteotan ISEI-IVEIk parte hartu du nazioarteko eta autonomia erkidego mailako zenbait ebaluaziotan. Ebaluazio horiek informazio gehiago eskaini dute ikerlan honen gaiari buruz.

### 3.2.1 Lehen Hezkuntzaren ebaluazioa 2004<sup>18</sup>.

2004. urtean, 1999an egindako ebaluazioaren jarraipen gisa, ebaluazio bat gauzatu zen Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen lagin adierazgarri batekin. Ebaluazioa honako ezaugarri hauek izan zituen:

*Urtea:* 2003-04 ikasturtea.

*Irakasmila:* Lehen Hezkuntzako 6. maila.

*Populazioa:* Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen lagin adierazgarria.

*Irakastereduak:* A, B eta D.

*Hezkuntza sarea:* publikoa eta itunpekoa.

*Ebaluatutako arloak:* Euskara, Gaztelania, Matematika eta Ingurunearen Ezaguera (curriculum orokorra eta euskal curriculum).

*Probako hizkuntza:*

- . Gaztelania A eta B eredu-tako ikasleentzat (euskarako proban izan ezik)
- . Euskara D eredu-tako ikasleentzat (gaztelaniako proban izan ezik)

Probako hizkuntzaren analititik zenbait *ondorio* atera ziren:

#### a) Probako hizkuntza etxeko hizkuntza denean:

- Etxeko hizkuntza euskara duten D eredu-tako ikasleek emaitza hobeak lortzen dituzte Euskaran, Matematikan eta Ingurunearen Ezagueran (euskal curriculum).
- A eta B eredu-tako ikasleek D eredu-tako baino emaitza hobeak lortzen dituzte Gaztelanian eta Ingurunearen Ezagueran (euskal curriculum).

#### b) Probako hizkuntza etxeko hizkuntza ez denean:


- D eredu-tako ikasleen artean, etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleek etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek baino puntuazio apalagoak lortzen dituzte, Gaztelanian izan ezik. Hala ere, Euskadiko betez besteko puntuazio orokorra baino puntuazio altuagoa lortzen dute arlo horretan.
- Etxeko hizkuntza gaztelania duten D eredu-tako ikasleen multzoak (hizkuntza aldaketa) A eta B eredu-tako ikasleek baino emaitza hobeak lortzen dituzte Euskaran eta Ingurunearen Ezagueran (euskal curriculum).

Grafikoan D eredu-tako ikasleek arlo bakoitzean lortutako emaitzak azaltzen dira, etxeko hizkuntza kontuan izanik. Eredu horretako ikasle guztiek euskaraz egin zuten proba.

- Ezker aldeko zutabe urdinak etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen batez besteko puntuazioak irudikatzen ditu.
- Eskuin aldeko zutabeak etxeko hizkuntza gaztelania duten D eredu-tako (irakas-hizkuntza, euskara) ikasleen batez besteko puntuazioak irudikatzen ditu. Ikasle horiek, beraz, proba irakas-hizkuntzan egin zuten, ez etxeko hizkuntzan.

<sup>18</sup> <http://www.isei-ivei.net/> Argitalpenak atalean: Lehen Hezkuntzaren ebaluazioa 2004. Laburpen exekutiboa. Ondorioak eta hobekuntzarako proposamenak. 2006ko apirila ([http://www.isei-ivei.net/cast/pub/EP2004\\_CAS.pdf](http://www.isei-ivei.net/cast/pub/EP2004_CAS.pdf) edo [http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/EP2004\\_EUS.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/EP2004_EUS.pdf))

**D ereduko ikasleen emaitzen arteko konparazioa etxeko hizkuntzaren arabera. Lehen Hezkuntzaren Ebaluazioa 2004**



Txostenaren bukaeran hipotesi hauek planteatzen dira:

- Dirudenez, etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza ezberdinak izateak nolabaiteko eragina izan du emaitzetan. Behar bada, etxeko hizkuntza gaztelania duten D ereduko ikasleek, proba gaztelaniaz egin balute, puntuazio gehigarri bat lortuko zuketuen. Kontuan hartu behar da, gainera, ebaluazioan parte hartu duten ikasle batzuk oraindik hizkuntza-gaitasuna eskuratzeko prozesuan daudela.
- Beste alde batetik azpimarratu behar da, ziur aski bi hizkuntza ofizialetako bakoitzak gizartean duen presentzia edo pisua ezberdinak izatearen ondorioz, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen gaztelaniazko gaitasuna etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleen euskarazko gaitasuna baino handiagoa dela.

### 3.2.2. PISA ebaluazioak (2003 - 2006 - 2009) <sup>19</sup>

2003. urtetik hona Euskadik PISA ebaluazioan (Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Proiektua) parte hartu izan du lagin handiagotu batekin. ELGAk (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea) sustatzen duen azterlan horren helburua etorkizuneko ikuspegia eskaintzea da eta konparazioak egitea da, eta 2000. urtean hasi zen Irakurketa, Matematika eta Zientzia arloetan. Hiru urtez behin egiten da, eta aldi bakoitzean arlo bat sakonkiago ebaluatzen da, beste bi arloak osagarri gisa ebaluatzen direlarik. Hartara, PISA 2000 ebaluazioan arreta Irakurketan jarri zen, PISA 2003 ebaluazioan, Matematikan, eta PISA 2006 ebaluazioan, Zientzian. PISA 2009 ebaluazioan arreta Irakurketan jarri zen berriro.

PISA 2003 ebaluazioan, aurreko atalean aipatu diren ikerlanen ondorioetan oinarriturik, D ereduko ikasleek proba nork bere etxeko hizkuntzan egin zezaten erabaki zen.

<sup>19</sup> [www.isei.ivei.net](http://www.isei.ivei.net). Argitalpenak atalean: PISA 2006 ebaluazioaren azken txostena. 15 urteko ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Proiektua Zientzietan, Matematikan eta Irakurketan. Euskadiko emaitzak. 2008ko uztaila.

Urteak: 2003, 2006 eta 2009.

Irakasmaila: ikasleak 15 urte bete behar ditu ebaluazioa egiten den urtean, irakasmaila edozein dela ere.

Populazioa: 15 urteko ikasleen lagin handiagotua.

Irakastereduak: A, B eta D.

Hezkuntza sarea: publikoa eta itunpekoa.


Ebaluatutako arloak edo konpetentziak: Irakurketa, Matematika eta Zientzia.

Probako hizkuntza: gaztelania etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleentzat.

Euskara etxeko hizkuntza euskara duten D ereduko ikasleentzat.

## PISA 2003<sup>20</sup>

PISA 2003 ebaluazioan Matematikarako konpetentzia sakonkiago ebaluatu zen. D ereduan eskolatutako 15 urteko ikasleek honako emaitza hauek lortu zituzten ebaluatutako konpetentzia bakoitzean:




Euskaraz eskolatutako ikasleek proba etxeko hizkuntzan egin zuten, aipatutako txostenean jasotzen den bezala, eta lortutako emaitzek honako hau adierazten dute:

- D ereduan etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen puntuazioen eta gaztelania duten ikasleen puntuazioen arteko aldea ez da estatistikoki adierazgarria.
- Bigarren hizkuntzan ikasten duten ikasleek, eta proba etxeko hizkuntzan egin dutenek, ez dute kalterik hartu; euren errendimendua eta etxean beste hizkuntza erabiltzen dutenena maila berekoak izan dira.
- Bigarren hizkuntzan eskuratutako ezagupenen transferentzia egokia dago lehen hizkuntzara.
- Etxeko hizkuntza gaztelania duten eta euskaraz ikasten duten ikasleek euren ezagupenak etxeko hizkuntzan egoki adierazten dituzte.

<sup>20</sup> PISA 2003 ebaluazioaren lehen txostena. Euskadiko emaitzak. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

PISA 2006<sup>21</sup>


PISA 2006 ebaluazioan zientziarako konpetentzia sakonkiago ebaluatu zen. D eremuan eskolatutako 15 urteko ikasleek honako emaitza hauek lortu zituzten ebaluatutako konpetentzia bakoitzean:



D ereduko ikasleek etxeko hizkuntzan, euskaraz edo gaztelaniaz, egin zuten proba, eta bi multzo horien puntuazioen arteko aldeak ez dira adierazgarriak inongo konpetentzian. PISA 2003 ebaluazioan antzemandako joera baieztatu egiten da.

PISA 2009<sup>22</sup>

PISA 2009 ebaluazioan irakurketarako konpetentzia sakonkiago ebaluatu zen. D eremuan eskolatutako 15 urteko ikasleek honako emaitza hauek lortu zituzten ebaluatutako konpetentzia bakoitzean:



Orain arte egin diren hiru PISA ebaluazioek berretsi dute D eremuan (irakas-hizkuntza euskara) proba euskaraz edo gaztelaniaz, norberaren etxeko hizkuntzaren arabera, egin duten ikasleen emaitzen arteko aldea ez dela adierazgarria ebaluatutako hiru konpetentzietan.

<sup>21</sup> PISA 2006 ebaluazioaren lehen txostena. Euskadiko emaitzak. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

<sup>22</sup> PISA 2009 Euskadi. Ebaluazioaren txostena. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

### 3.2.3 TIMSS ebaluazioak (2003 eta 2007)

Matematikako eta Zientzietako Joeren Nazioarteko Azterlana (TIMSS, *Trends in International Mathematics and Science Study*) Hezkuntza Errendimenduaren Ebaluaziorako Nazioarteko Elkarteak (IEA) egiten duen ebaluazioetako bat da. Ebaluazioa lau urtez behin gauzatzen da, eta Euskadik hurrenez hurrengo bi ediziotan hartu du parte, lehen aldiz 2003an eta azken aldiz 2007an.

TIMSSek bi ezagutza-arlotan, Matematikan eta Zientzian, ikasleek duten errendimenduari buruzko emaitzak eskaintzen ditu. TIMSS ebaluazioa Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan egiten den arren, Euskadin DBHko 2. mailan bakarrik hartu dugu parte lagin handiagotu batekin.

*Urteak:* 2003 eta 2007.

*Irakasmaila:* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila.

*Populazioa:* DBHko 2. mailako ikasleen lagin handiagotua.

*Irakastereduak:* A, B eta D

*Hezkuntza sarea:* publikoa eta itunpekoa

*Ebaluatutako arloak:* Matematika eta Zientzia


*Probako hizkuntza:* Gaztelania etxeko hizkuntza gaztelania duten A, B eta D ereduiko ikasleentzat. Euskara etxeko hizkuntza euskara duten D ereduiko ikasleentzat.

### TIMSS 2003

TIMSS 2003 ebaluazioaren emaitzek ez dute puntuazio-alde adierazgarrikerik erakusten etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleen eta txeko hizkuntza euskara duten ikasleen artean, probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza bera denean. Hau da, *proba etxeko hizkuntzaz egin zuten ikasleek, bigarren hizkuntzan eskolaturik egonda ere, eta etxeko hizkuntza eta irakas-hizkuntza bat bera duten ikasleek antzerako emaitzak lortu zituzten.*

Ondorengo grafikoetan D ereduiko ikasleek ebaluatutako bi kompetentzietan lortu zituzten emaitzak azaltzen dira.


Bai Matematikan baita Zientzian, proba etxeko hizkuntzan egin zuten ikasleen emaitzak berdinak ziren, etxeko hizkuntza euskara edo gaztelania izanik ere.





TIMSS 2007<sup>23</sup>

Ikasleek bai Matematikan bai Zientzian lortutako emaitzak probako hizkuntzaren arabera aztertzen baditugu, etxean euskaraz hitz egiten zuten eta proba euskaraz egin zuten ikasleen emaitzak nahiko hobekoak izan zirela ikusten da. Puntuazio-aldea estatistikoki adierazgarria da. Ordura arteko azterlan gehienek planteatzen zuten hipotesia lehenengoz ez zen bete: *hizkuntzak ez du eraginik emaitzetan, proba etxeko hizkuntzan egiten denean*. Ebaluazio hartan ikasle guztiak etxeko hizkuntzan egin zuten proba, eta, hala ere, etxeko hizkuntza euskara zuten ikasleen emaitzak nabarmenki hobekoak izan ziren.



Ezberdintasun hura antzeman zen lehenengo aldia zenez, emaitza hura azaltzeko zein beste arrazoi egon zitekeen aztertzea erabaki zen. Hartarako zenbait analisi gauzatu ziren, haien arteko bat probaren bi bertsioetako itemen zailtasuna egiaztatzea. Gaztelaniazko bertsioa euskarazkoa baino zailagoa ote zen aztertu ondoren, ideia hura baztertu egin zen.

Halaber, emaitzak ikasleen adina irakasmilarako egokia zen ala ez kontuan izanik aztertu ziren, hots, ikasleek irakasmilarik errepikatua zuten ala ez kontuan izanik, eta honako ondorio hau atera zen: proba etxeko hizkuntzan egin zuten adin egokiko (irakasmilarik inoiz errepikatu ez zuten) ikasleen artean, etxeko hizkuntza euskara zutenen eta etxeko hizkuntza gaztelania zutenen arteko puntuazio-aldea apur bat murriztu zen. Hala ere, aldea oraindik ere mantentzen zen eta adierazgarria zen.

Ikastaldean ikasle errepikatzaileen edo irakasmilarako adin egokia ez zutenen ehunekoak ere aztertu zen. Korrelazioa egiterakoan, ikastaldeko ikasle errepikatzaileen ehunekoaren eta ikastaldean etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekoaren arteko erlazioa (-0,318) negatiboa eta 0,01 mailan adierazgarria (aldebikoa) zela ikusi zen. Horrek, alde batetik, D ereduan etxeko hizkuntza euskara zuten ikasle errepikatzaileak etxeko hizkuntza gaztelania zuten ikasleak baino gutxiago zirela adierazten zuen, eta bestetik, ikastaldean etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekoak zenbat eta txikiagoa izan, hainbat eta handiagoa zela ikastaldeko ikasle errepikatzaileen ehunekoak. Ikasle errepikatzaileen kopuruak ikastaldean zuen eragina adierazgarria zen, eta kasu horretan probako bi hizkuntzen arteko puntuazio-aldea ezeztatzerik ere heltzen zelarik.

Analisiak egin ondoren ikusi zen probako hizkuntzak, aldagai bakar bezala, ez zuela azaltzen ikasleen errendimendua. Ikastaldeko ikasle errepikatzaileen ehunekoaren aldagaia kontrolatzen zenean, berriz, -hau da, emaitza ikasle errepikatzaileen ehunekoak ikastalde guztietan berdina

<sup>23</sup> [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net). En Publicaciones: TIMSS 2007. Resultados en Matemáticas y Ciencias en el País Vasco. Abril 2008

balitz bezala kalkulatu zenean– proba euskaraz edo gaztelaniaz egin zuten ikasleen puntuazioen arteko aldea ez zutela egiten zen.

### 3.2.4 Ebaluazio diagnostikoak <sup>24</sup> (2009 - 2010 - 2011)

Euskal Autonomia Erkidegoan Ebaluazio Diagnostikoak 2009. urtetik urtero egin dira Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan. Hiru kompetentzia finko (Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia, Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia eta Matematikarako kompetentzia) ebaluatu dira eta urtero aldatzen den beste kompetentzia bat. Probak egiteko nazioarteko probetarako erabiltzen diren irizpide berberak hartzen dira kontuan. Ebaluazioak isilpekoak dira, urtetik urtera egiten diren konparazioak estatistikoki baliodunak izan daitezten.

*Urteak:* 2009 - 2010 - 2011

*Irakasmila:* Lehen Hezkuntzako 4. maila eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila.

*Populazioa:* Irakasmila horietako ikasle guztiak.

*Irakastereduak:* A, B eta D

*Hezkuntza sarea:* publikoa eta itunpekoa

*Ebaluatutako arloak:* Arlo finkoak: Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia, Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia eta Matematikarako kompetentzia. Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentzia, 2009an. Gizarte eta herritartasunerako kompetentzia, 2010ean.

*Hizkuntza arlokoak ez diren probetako hizkuntza*

- Ikastetxeak erabaki zuen ikasleek proban zein hizkuntza erabili behar zuten: etxeko hizkuntza ala irakas-hizkuntza.
- D ereduko ikaslerik gehienek proba euskaraz egin zuten.

Aipatu beharrekoa da D ereduko ikasleek nazioarteko ebaluazioak beti etxeko hizkuntzan egiten dituztela, baina Ebaluazio Diagnostikoetan ikastetxeak erabakitzen duela ikasleek hizkuntza-arlokoak ez diren kompetentzietako probetan (Matematikarako kompetentzia eta urtetik urtera aldatzen den kompetentzia) zein hizkuntza erabili behar duten, irakas-hizkuntza (euskara D ereduan, euskara edo gaztelania B ereduan, gaztelania A ereduan) ala etxeko hizkuntza (euskara ala gaztelania). Etxeko hizkuntza aukeratzeko denean, ikasleek ondoan menperatzen duten hizkuntzan (euskaraz ala gaztelaniaz) egiten dituzte probak. Ikasle etorkinek bi hizkuntzetako bat aukeratu behar dute.

Aurrekoa kontuan izanik, egoera hauek egon daitezke:


- Etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleek probak euskaraz egitea. D ereduko ikasle gehienek kasua.
- Etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleek probak gaztelaniaz egitea. A ereduko ikasle guztien kasua eta B ereduko ikasleen parte baten kasua.
- Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek probak euskaraz egitea. Horrelako ikasle gehienek D eredukoak dira.
- Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek probak gaztelaniaz egitea. Ikasle bakan batzuen kasua.

<sup>24</sup> Ver [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net): "Ebaluazio Diagnostikoak 2009. Emaitzen txosten orokorra" LH4 eta DBH2. 2010eko martxoa

### Ebaluazio Diagnostikoa 2009. L. H.ko 4. mailako ikasleen errendimendua D eredia

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, DBHko 2. mailan gertatu zen bezala, D ereduko ikasle gehienek Matematikarako kompetenziako proba irakas-hizkuntzan egin zuten, euskaraz.

Irakasteredu horretan, probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza bera denean –euskara, kasu horretan–, emaitzak etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleek proba euskaraz egiten dutenean baino nabarmenki hobetoak izaten direla ikus daiteke.




Datuen analititik ondorio hau atera daiteke:

- D ereduan, proba euskaraz egiten duten ikasleen artean, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek etxeko hizkuntza gaztelania dutenek baino emaitza nabarmenki hobetoak lortzen dituzte. Beste era batean esanda, D ereduan probako hizkuntza eta ikaslearen etxeko hizkuntza bera denean (euskara) emaitzak nabarmenki hobetoak izaten dira.

### Ebaluazio Diagnostikoa 2009. DBHko 2. mailako ikasleen errendimendua D eredia

D ereduan, bai Matematika arloa baita Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziari dagozkion arloak ere euskaraz irakasten dira. Ondorengo taulan DBHko 2. mailako ikasleek kompetentzia horietan izandako errendimendua ikus daiteke etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza kontuan harturik.



DBHko 2. mailan ere puntuazioek adierazten dute probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza bera direnean emaitzak nabarmenki hobeak izaten direla.


### Ebaluazio Diagnostikoa 2010. L. H.ko 4. mailako ikasleen errendimendua D eredia

2010. urtean berriro gauzatu ziren ebaluazio diagnostikoak, eta Gizarte eta herritartasunerako konpetentzia lehenengoz ebaluatu zen, Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentziaren ordez.

Probako hizkuntzari dagokionez, ebaluaziorako jarraibideak eta irizpideak aurreko urteko berberak izan ziren. Oro har, bai 2009ko ebaluazioan baita 2010eko ebaluazioan ere D eredia zuten ikastetxerik gehienek ikasleak ebaluatzeko irakas-hizkuntza hautatu zuten. Horrek esan nahi du D ereduko ikasleen gehiengo handi batek proba euskaraz egin zutela, etxeko hizkuntza euskara zutenek eta gaztelania zutenek ere.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako D ereduko ikasleek hizkuntzakoak ez diren konpetentzietan honako emaitza hauek lortu zituzten, etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza berdinak zirenean eta ezberdinak zirenean:

**ED10. LH4. D eredia. Errendimendua etxeko hizkuntzaren arabera eta probako hizkuntzaren arabera**




Analisitik *ondorio* hau atera daiteke:

- Etxeko hizkuntza euskara duten eta proba euskaraz egin duten ikasleen puntuazioa etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasleena baino nabarmenki altuagoa da Matematikarako konpetentzian eta Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentzian ere.

### Ebaluazio Diagnostikoa 2010. DBHko 2. mailako ikasleen errendimendua D eredia

Lehen Hezkuntzako 4. mailan gertatu zen bezala, DBHko 2. mailako ikasleek, probako hizkuntza euskara denean, emaitza hobeak lortu dituzte, eta aldea adierazgarria da bai matematikarako konpetentzian baita Gizarte eta herritartasunerako konpetentzian ere.




### Ebaluazio Diagnostikoa 2011. L. Hko 4. mailako ikasleen errendimendua D eredia

2011. urtean berriro gauzatu ziren ebaluazio diagnostikoak, eta Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia lehenengoz ebaluatu zen, Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentziaren ordean.

Probako hizkuntzari dagokionez, ebaluaziorako jarraibideak eta irizpideak aurreko urteko berberak izan ziren. Oro har, bai 2009ko eta 2010eko ebaluazioetan baita 2011ko ebaluazioan ere D eredia zuten ikastetxerik gehienek ikasleak ebaluatzeko irakas-hizkuntza hautatu zuten. Horrek esan nahi du D ereduko ikasleen gehiengo handi batek proba euskaraz egin zutela, etxeko hizkuntza euskara zutenek eta gaztelania zutenek ere.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako D ereduko ikasleek hizkuntzako ez den konpetentzian, Matematikarako konpetentzia urte hartan, honako emaitza hauek lortu zituzten, etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza berdina zirenean eta ezberdina zirenean:




Analisitik *ondorio* hau atera daiteke:

- Etxeko hizkuntza euskara duten eta Matematikarako konpetentziako proba euskaraz egin duten ikasleen puntuazioa etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasleena baino nabarmenki altuagoa da.

### Ebaluazio Diagnostikoa 2011. DBHko 2. mailako ikasleen errendimendua D eredua

Lehen Hezkuntzako 4. mailan gertatu zen bezala, DBHko 2. mailako ikasleek, etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza euskara denean, emaitza hobeak lortu dituzte, eta aldea adierazgarria da Matematikarako konpetentzian, edizio hartan ebaluatutako konpetentzia ez-linguistiko bakarrean.

**ED11 DBH2. D eredua. Errendimendua etxeko hizkuntzaren arabera eta probako hizkuntzaren arabera**



Bi irakasmaila horietan D ereduan egindako hiru ebaluazioek probako hizkuntzari dagokionez atera dituzten *ondorioek* honako hau egiaztatu dute:

- **Proba etxeko hizkuntzan egiten duten ikasleek emaitza nabarmenki hobeagoak lortzen dituzte:**
  - D ereduan, etxeko hizkuntza euskara duten eta proba euskaraz egin duten ikasleek etxeko hizkuntza bezala beste hizkuntza bat (gehienetan gaztelania) duten ikasleek baino emaitza nabarmenki hobeagoak lortzen dituzte.
  - D ereduan, etxeko hizkuntza bezala euskara ez duten eta proba, kasurik gehienetan, euskaraz egin zuten ikasleek emaitza nabarmenki apalagoak lortu dituzte ebaluatutako konpetentzia ez-linguistikoetan.

## EGINDAKO EBALUAZIOETAN PROBAKO HIZKUNTZAK IZAN DUEN ERAGINARI BURUZKO ONDORIOAK

ISEI-IVEIk 2003. urtetik hona egindako zortzi ebaluazioen eta azterlanaren laburpen gisa, honako hau aipatu behar da:

- ✓ **Lehen Hezkuntza 2004** ebaluazioan, 6. mailako ikasleei egindakoa, *Euskara, Gaztelania, Matematika eta Ingurunearen ezaguera* arloak ebaluatu ziren. D ereduko ikasleek euskaraz egin zituzten proba guztiak, Gaztelaniakoa izan ezik. Etxeko hizkuntza gaztelania zuten D ereduko ikasleek etxeko hizkuntza euskara zuten ikasleek baino puntuazio apalagoak lortu zituzten, Gaztelania arloan izan ezik.
- ✓ **PISA 2003, 2006 eta 2009 ebaluazioetan** D ereduko ikasleek *Irakurketa, Zientzia eta Matematikako* probak nor bere etxeko hizkuntzan (euskara ala gaztelania) egin zituzten, eta hiru konpetentzietan lortutako puntuazio-aldeak ez dira adierazgarriak.
- ✓ DBHko 2. mailako ikasleek egindako **TIMSS 2003** *Matematika* eta *Zientziako* ebaluazioan hipotesia egiaztatu zen, ikasleek proba etxeko hizkuntzan egiten dutenean ez baitago hizkuntzaren aldetiko puntuazio-alde adierazgarririk ez arlo batean ez bestean. Hala ere, **TIMSS 2007** ebaluazioan etxeko hizkuntza gaztelania zuten D ereduko ikasleek etxeko hizkuntza euskara zutenek baino emaitza nabarmenki apalagoak lortu zituzten, proba nor bere etxeko hizkuntzan egin zuelarik. Hau da planteatutako hipotesiaren salbuespen bakarra.
- ✓ Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan errolda esparruan egin diren **Ebaluazio Diagnostikoetan (2009–2010–2011)**, D ereduko ikasleek hizkuntzakoak ez diren konpetentzietako probak irakas-hizkuntzan (euskara) edo etxeko hizkuntzan (euskara edo gaztelania) egiteko aukera izan dute. Datuek erakutsi dute D ereduan ikaslearen irakas-hizkuntza eta etxeko hizkuntza (euskara) bera denean, emaitzak nabarmenki hobetoak izaten direla.

Planteatutako hipotesia ebaluazio guztietan egiaztatzen da, **TIMSS 2007** ebaluazioan izan ezik: D ereduan, probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza bera denean (euskara edo gaztelania), bi taldeen errendimendua antzerakoa izaten da. Hala ere, hizkuntza-aldaketa egiten denean, hau da, etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleek proba irakas-hizkuntzan (euskara) egiten dutenean, emaitzak nabarmenki apalagoak izaten dira.





## 4. PISA-L IKERLANAREN METODOLOGIA

Ikerlana PISA nazioarteko ebaluazioaren esparruan kokatzen da. PISA 2009 ebaluazioan Euskadiko 15 urteko ikasleen lagin adierazgarri batek parte hartu zuen, eta laginetik D ereduko ikasleen azpi-lagin bat aukeratu zen. PISA-L ikerlanean Luxenburgok eta Euskadik hartu dute parte. Biek hezkuntza sistema elebiduna dute, errealitate sozio-kulturalak oso ezberdinak diren arren (ikus 10. or.). PISA-L ebaluazioko datuen analisi-prozesua ACER (Australian Council for Educational Research) erakundeak gauzatu du.

### 4.1 PROBAREN ETA GAUZAPENAREN DESKRIBAPENA

2009. urtean PISA ebaluazioan, 2000. urtean bezala, konpetentzia nagusitzat irakurketarako konpetentzia ebaluatu zen. Hori kontuan izanik eta horrelako ebaluazio batek eskaintzen zuen azpiegitura baliaturik, bai Euskadin bai Luxenburgon ebaluazio proba osagarri batzuk gauzatu ziren PISA-L izeneko ikerlana aurrera ateratzeko. Ikerlanaren ardura zuten erakundeek, ISEI-IVEI Euskadiren kasuan, prozedura bera jarraitu zuten.

Lehen aipatu den bezala, helburua honako hipotesi hau egiaztatzea ala baztertzea zen: murgiltze irakasteredu elebidunetako ikasleek errendimendu hobeagoa izaten dute, eta euren ezagupenak eta konpetentzia-maila hobeto adierazten dituzte ebaluazio-probak euren etxeko hizkuntzan (IH) egiten dituztenean; probak bigarren hizkuntzan egiten dituztenean, euren konpetentzia-maila gutxietsi egiten da.

PISA-L probaren sorburua izan zen PISA 2009 ebaluazio-proba 13 liburuxkak osatzen zuten. Liburuxka bakoitzean irakurketari, zientziari edota matematikari zegozkion lau bloke zeuden, ausazko ordenan aurkezturik. Irakurketarako konpetentziari zegozkion blokeak edozein ordenatan ageri zitezkeen, errenkan edo zientziako edota matematikako blokeen artean tartekaturik.

Ikerlanak eskatzen zituen probak gauzatzeko honako prozedura hau jarraitu zen:

- PISA 2009 ebaluazioan parte hartu zuten ikasleen laginetik D ereduko ikasleen artean azpi-lagin bat hautatu zen. Hautatua izateko baldintza bakarra hau zen: ikasleak PISA 2009 ebaluazioan betetako liburuxkaren hasierako item-blokea irakurketakoa izatea; hori 13 liburuxketako 7tan gertatzen zen.
- Hautatutako azpi-lagineko ikasleek, PISA 2009 proba egin eta bi aste pasa ondoren, bigarren ebaluazio bat egin zuten, irakurketa proba bakarriz zuena. Probaren iraupena ordu batekoa izan zen eta bi item-blokek osatzen zuten.
- Azpi-laginetik bi kontrol-talde eta bi talde esperimental osatu ziren:
  - Bi kontrol-taldeetan bi ebaluazioak (PISA 2009 eta PISA-L) hizkuntza berean egin zituzten: ikaslearen etxeko hizkuntzan (euskara ala gaztelania).
  - Bi talde esperimentaletan bigarren ebaluazioa (PISA-L) lehen ebaluazioan erabili ez zuten hizkuntzan egin zuten (lehena euskaraz egin zutenek, gaztelaniaz; gaztelaniaz egin zutenek, euskaraz).

Datuen analisia honela egin da:

- D ereduko azpi-lagineko ikasleek PISA 2009 ebaluazioko irakurketako proban –lehen egunean– lortutako emaitzak aztertu eta konparatu dira.
- Beste alde batetik, bigarren egunean egindako PISA-L probako emaitza orokorrak eta taldekakoak aztertu dira.

## 4.2 LAGINAREN DESKRIBAPENA

PISA-L ikerlana gauzatzeko Euskadin PISA 2009 ebaluazioan parte hartu zuten 15 urteko D ereduko ikasleen artean (**2.658**) azpi-lagin bat atera zen arestian aipatutako irizpideen arabera. Azpi-lagina **1.437** ikaslek osatzen zuten.

<b>PISA 2009</b> D ereduko lagina	<b>2.658 ikasle</b>
<b>PISA-L</b> D ereduko azpi-lagina	<b>1.437 ikasle</b>

PISA-L ebaluazioan parte hartu zuten 15 urteko D ereduko ikasleen % 83,3 irakasmilarako adin egokikoa zen, hots, DBHko 4. mailan eskolatua. Ikasleen % 16,7k irakasmilaren bat errepikatua zuen. % 51 mutilak ziren eta % 49, neskak. Azpi-lagineko ikasleen % 97 bertokoa zen. Haien arteko 379ren (% 26,4) etxeko hizkuntza euskara zen.

### PISA-L proba egin zuten ikasleak

Kopurua
<b>1.437<sup>25</sup></b>

### Banaketa irakasmilaren arabera edo irakasmilarako adinaren egokitasunaren arabera

Maila	K	%
DBH 1*	1	0,1
DBH 2	44	3,1
DBH 3	195	13,6
DBH 4	1.197	83,3
GUZTIRA	1.437	100

\*\*Ziur asko galdera-sorta betetzerakoan egindako hutsegitea.

### Ikasleen banaketa sexuaren arabera

Sexua	K	%
NESKAK	703	48,9
MUTILAK	734	51,1
GUZTIRA	1.437	100

Ebaluazio-probaz gain ikasleek galdera-sorta bat ere bete zuten, eta bertan etxean zein hizkuntza erabiltzen zuten zuzenki galdetzen zitzairen. Ikasleen etxeko hizkuntzaren araberrako banaketa ondorengo taulan azaltzen da:

<sup>25</sup> PISA-L proba egin zuten ikasleak

**Ikasleen banaketa etxeko hizkuntzaren arabera (ikasleentzako galdera-sorta)**

	K	%
Etxeko hizkuntza eta PISA 2009 probako hizkuntza, berdinak (euskara ala gaztelania)	1250	87,0
* Etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza, ezberdinak	175	12,2
Informazioa falta da	12	0,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.437</b>	<b>100</b>


\*175 ikaslek diote euren etxeko hizkuntza ez dela ikastetxeko informazioan jasota dagoena. Kopuru horrek desadostasun handia adieraziko luke ikastetxeko informazioaren eta PISA 2009 ebaluazioan ikasleentzako galdera-sortan jasotakoaren artean; kopuru horren barruan etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzen duten ikasle etorkinak sartzen dira.

Ikasleentzako galdera-sortan jasotako informazioaren eta ikastetxeak emaitzen azterketarako eskainitakoaren artean adostasun falta izan deneko kasuetan, bai sistemak galdutako 12 kasuetan baita 175 ikasle horien kasuan ere, ikasleei ikastetxean jasota zegoen etxeko hizkuntza egokitu zaie. Bukaerako banaketa ondorengo taulan azaltzen da.

**Ikasleen banaketa etxeko hizkuntzaren arabera (ikastetxeko informazioa)**

	K	%
Etxeko hizkuntza: Euskara	379	26,4
Etxeko hizkuntza: Gaztelania	1.058	73,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.437</b>	<b>100</b>

Ondorengo eskeman PISA 2009 ebaluazioan parte hartu zuten D ereduko ikasleen banaketa azaltzen da, PISA-L ikerlanerako sortutako kontrol-taldeen eta talde esperimentalen banaketarekin batera.

**PISA-L PROBAN PARTE HARTU ZUTEN IKASLEAK**

Eskeman adierazten den bezala, PISA-L ikerlana egiteko PISA 2009 ebaluazioa etxeko hizkuntzan egin zuten D ereduko ikasleen artetik 1.437 ikasle hautatu ziren. Ondoren, kontrol-taldeak eta talde esperimentalak sortu ziren, ebaluazioaren lehen egunean erabilitako hizkuntza bigarren egunean ere erabili zuten ala ez kontuan izanik:

- *1 kontrol-taldea*: 198 ikasle; etxeko hizkuntza, euskara; bi probak euskaraz egin zituzten.
- *2 kontrol-taldea*: 540 ikasle; etxeko hizkuntza, gaztelania; bi probak gaztelaniaz egin zituzten.
- *1 talde esperimental*: 181 ikasle; etxeko hizkuntza, euskara; PISA 2009 proba euskaraz egin zuten, eta PISA-L proba, gaztelaniaz.
- *2 talde esperimental*: 518 ikasle; etxeko hizkuntza, gaztelania; PISA 2009 proba gaztelaniaz egin zuten, eta PISA-L proba, euskaraz.

Bi kontrol-taldeetako 738 ikasleek bi probak etxeko hizkuntzan egin zituzten. Bi talde esperimentaletako 699 ikasleek bigarren eguneko proba etxekoaz bestelako hizkuntzan egin zuten.

## 5. PISA-L IRAKURKETAKO PROBAKO EMAITZEN ANALISIA

### *D ereduko ikasleek PISA 2009 ebaluazioan irakurketan lortutako emaitzak probako hizkuntzaren arabera<sup>26</sup>*


D ereduko ikasleek (2.658) norik bere etxeko hizkuntzan egin zuten: etxean gaztelaniaz hitz egiten zutenek, gaztelaniaz, eta etxean euskaraz hitz egiten zutenek, euskaraz.

Bi talde horiek irakurketan lortu zuten emaitzen arteko aldea 10 puntukoa izan zen, baina aldea ez da estatistikoki adierazgarria, ondorengo taulan eta grafikoan azaltzen den bezala.

*PISA 2009. D ereduko ikasleen batez besteko puntuazioa probako hizkuntzaren arabera*

Probako hizkuntza	K	Batez bestekoa	Errore tipikoa	Desbid. tipikoa	Adierazgarritasuna
<b>Gaztelania</b>	1.917	<b>492</b>	3,6	77,9	=
<b>Euskara</b>	741	<b>482</b>	5,4	76,3	
<b>D eredua guztira</b>	<b>2.658</b>	<b>489</b>	3,5		

**PISA 2009. D ereduko ikasleen puntuazio orokorra eta puntuazioak probako hizkuntzaren arabera**



*Ikasle guztiak proba etxeko hizkuntzan egin zuten*


Ondorengo taulan PISA-L ebaluaziorako sortutako azpi-lagineko ikasleek PISA 2009 ebaluazioan lortutako emaitzak bakarrik azaltzen dira. Ondorengo taulan ikus daitekeenez, berriro ere proba hizkuntza batean eta bestean egitean lortutako puntuazioen arteko aldea ez da adierazgarria. Gogoratu beharrekoa da PISA 2009 ebaluazio-proba etxeko hizkuntzan egin zutela.

<sup>26</sup> ISEI-IVEI egindako ikerlanek baieztatzen zuten ikasle elebidunek ondoen ezagutzen zuten hizkuntzan errendimendu hobea izaten zutela, eta proba bigarren hizkuntzan egiten zutenean, euren kompetentzia-maila gutxietsi egiten zela. Ondorioz, D ereduko ikasleek PISA 2003, 2006 eta 2009 ebaluazioetako probak norik bere etxeko hizkuntzan egin zituzten erabaki zen.

*PISA 2009. D ereduko azpi-lagineko ikasleen batez besteko puntuazioa probako hizkuntzaren arabera*

Probako hizkuntza	K	Batez bestekoa	Errore tipikoa	Adierazgarritasuna
<b>Gaztelania</b>	1.058	<b>494</b>	5,9	=
<b>Euskara</b>	379	<b>489</b>	5,4	
<b>Azpi-lagina guztira</b>	<b>1.437</b>	<b>493</b>	3,5	

**PISA 2009. D ereduko azpi-lagineko puntuazioa eta puntuazioak probako hizkuntzaren arabera**




*Ikasle guztiek proba etxeko hizkuntzan egin zuten*

*PISA 2009 ebaluazioko D ereduko lagineko datuek eta PISA-L ebaluazioko D ereduko azpi-lagineko datuek baieztatzen dute ikasleek proba etxeko hizkuntzan egiten dutenean haien artean ez dagoela alde adierazgarririk. Hau da, etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleek (irakas-hizkuntza eta etxeko hizkuntza, berbera) etxean gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleek (irakas-hizkuntza eta probako hizkuntza, ezberdinak) emaitza berdinak lortzen dituzte.*

### **PISA-L ikerlana.**


Aurreko datuen argitan ikus dezakegu nolakoa izan zen D ereduko ikasle guztiek PISA 2009 ebaluazioan Irakurketan izan zuten errendimendua eta PISA-L ikerlana egiteko atera zen azpi-lagineko ikasleena. Lehen eguneko errendimendua, hots, etxeko hizkuntzan irakurtzeko zuten kompetentzia maila, ezagutu ondoren, ikasle multzo horrek probaren bigarren egunean izan zuten errendimendua aztertu da. Bigarren egun horretan ikasleen parte batek proba etxekoaz bestelako hizkuntzan egin zuen. Datu horietan oinarriturik, bi egunetako emaitzen arteko konparazioa egin da, ikasleek eskuratutako ezagupenak ondoen zein hizkuntzatan adierazten dituzten aztertu ahal izateko.



### • Ikasleek PISA 2009 eta PISA-L ebaluazioetan lortutako emaitzen konparazioa

Ondorengo grafikoan bi talde horietako emaitzen arteko aldeak azaltzen dira, eta ebaluazioaren bigarren egunean (PISA-L), hizkuntza aldatzen denean, emaitzak nola jaisten diren ikus daiteke. Hala ere, jaitsiera hizkuntza-aldaketa gaztelaniatik euskarara egiten denean bakarrik da adierazgarria. Oso datu garrantzitsua da, etxeko hizkuntza eta irakas-hizkuntza euskara duten D ereduko ikasleen puntuazioa, proba gaztelaniaz egiten dutenean, ez delako nabarmenki jaisten. Behin baino gehiagotan aipatu denez, horren arrazoa bi hizkuntzek hizkuntza-ingurune eta testuinguru batzuetan duten presentzia ezberdina izan daiteke.

**PISA 2009 y PISA-L. Kontrol taldeko eta talde esperimenterako puntuazioen arteko aldea**



Grafikoan azaltzen denez, bi taldeek bi ebaluazioetan (PISA 2009 eta PISA-L) lortutako emaitzak konparatzen direnean, bigarren egunean bi taldeek puntuazio apalagoa lortu dutela ikus daiteke. Horrek adierazten du hizkuntza aldatzen dutenean benetako konpetentzia erakusteko zailtasun handiagoa izaten dutela. Hala eta guztiz ere, egoera aldatu egiten da talde batetik bestera ikasleen etxeko hizkuntzaren arabera.

- 1 Taldeetan (etxeko hizkuntza, euskara) PISA-L proba egiteko gaztelaniara aldatu diren ikasleek kontrol-taldeak baino 7 puntu gutxiago lortu dituzte, baina alde hori ez da adierazgarria. PISA 2009 proban izan den puntu bateko aldea ere ez da adierazgarria.
- 2 Taldeetan (etxeko hizkuntza, gaztelania), PISA 2009 proba guztiek etxeko hizkuntzan egin zutenean, talde esperimenteralak 7 puntu gehiago lortu zituen. Hala ere, bigarren egunean, PISA-L proba euskaraz egin zutenean, talde esperimenteralak kontrol-taldeak baino 16 puntu gutxiago lortu zituen. Aldea adierazgarria da.

Ondorengo taula eta grafikoetan ebaluazioaren bi egunetan parte hartu zuten D ereduko ikasleen emaitzak azaltzen dira, talde motaren arabera banaturik (kontrol-taldeak eta talde esperimenteralak) eta baita etxeko hizkuntzaren arabera banaturik ere.

### Ikasleen emaitzen arteko konparazioa etxeko hizkuntzaren arabera.


Ondorengo taulan ikerlanean parte hartu duten D ereduko ikasleek ebaluazioaren bi egunetan lortutako emaitzak azaltzen dira. Taldeek lehen egunean lortutako puntuazioa (hasierako puntuazioa) eta bigarren egunean lortutakoa ikus daitezke, proba berriro etxeko hizkuntzan egin dutenean (kontrol-taldeak) eta bigarren egunean hizkuntza aldatu dutenean (talde esperimentalak).

#### D ereduko ikasleak: kontrol-taldeak eta talde esperimentalak. PISA 2009 eta PISA-L ebaluazioen arteko konparazioa

		K	PISA 2009	PISA-L	Aldea talde bakoitzaren barruan
Proba etxeko hizkuntzan bi egunetan	<b>Kontrol-taldeak</b>	738	<b>491</b>	<b>489</b>	2 puntu
Hizkuntza aldatuta bigarren egunean	<b>Talde esperimentalak</b>	699	<b>495</b>	<b>474</b>	21 puntu

*PISA 2009 ebaluazioan ikasle guztiak etxeko hizkuntzan egin dute proba*

#### Kontrol-taldeko eta talde esperimentaleko ikasleen emaitzak PISA 2009 eta PISA-L ebaluazioetan



Grafikoan ikus daitekeenez, bi taldeetako puntuazioak apalagoak dira bigarren egunean, baina puntuazio-aldea bakarrik da adierazgarria ikasleek bigarren egunean (PISA-L) hizkuntza aldatzen dutenean (495 puntutik 474ra). Datu horietatik ondorio hau atera daiteke: **ikasleek proba etxekoaz bestelako hizkuntzan egiten dutenean errendimendu nabarmenki apalagoa izaten dute lehen egunean proba etxeko hizkuntzan egin dutenean baino.**

Jarraian ikerlaneko taldeen portaera etxeko hizkuntzaren arabera (euskara ala gaztelania) banaturik aztertzen da. Kontuan izan behar da, etxeko hizkuntza edozein dela ere, irakasteredu bereko ikasleak direla, eskolatzeko egoera berdina dela, curriculum bera ikasten dutela eta abar.



- Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen konparazioa


Taulan etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek ebaluazioaren bi egunetan (PISA 2009 eta PISA-L) lortutako puntuazioak azaltzen dira.

Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleak. PISA 2009 eta PISA-L ebaluazioen arteko konparazioa

		K	PISA 2009	PISA-L	Aldea talde bakoitzaren barruan
Etxeko hizkuntza: Euskara Proba euskaraz bi egunetan	I kontrol-taldea	198	489	493	+4 puntu
Etxeko hizkuntza: Euskara PISA-L proba gaztelaniaz	I talde esperimentalak	181	488	486	-2 puntu

PISA 2009 ebaluazioan ikasle guztiak etxeko hizkuntzan egin dute proba

Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen emaitzak PISA 2009 eta PISA-L ebaluazioetan



\*Bi taldeen arteko aldea ez da adierazgarria

Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen artean, bigarren eguneko proban hizkuntza aldatu ez dutenek (kontrol-taldea) PISA-L proban puntuazio altuagoa lortu dute, baina 4 puntuko aldea ez da adierazgarria. Hizkuntza aldatu dutenek bi puntu gutxiago lortu dute, eta alde negatibo hori ere ez da adierazgarria.

Beste hitz batzuetan, **etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek konpetentzia-maila bera erakusten du proba euskaraz egiten duenean eta gaztelaniaz egiten duenean. Horrek hizkuntza bakoitzak gizartean duen presentziaren eragina planteatzen du, ikasle horiek ikaste-irakaste prozesua etxeko hizkuntzan (euskara) garatzen dutelako.**

- Etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleen konparazioa

Etxean hitz egiten duten D ereduko ikasleen azpi-laginarekin analisi bera egiten denean, taulan azaltzen diren emaitzak lortzen dira.


**Etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleak. PISA 2009 eta PISA-L ebaluazioen arteko konparazioa**

		K	PISA 2009	PISA-L	Aldea talde bakoitzaren barruan
Etxeko hizkuntza: Gaztelania Proba gaztelaniaz bi egunetan	<b>2 kontrol-taldea</b>	540	<b>491</b>	<b>487</b>	-4
Etxeko hizkuntza: Gaztelania PISA-L proba euskaraz	<b>2 talde esperimentalak</b>	518	<b>498</b>	<b>471</b>	-27

En PISA 2009 todo el alumnado ha hecho la prueba en euskara

PISA 2009 ebaluazio-proba etxeko hizkuntzan (gaztelania) egin arren, PISA-L ebaluazioan talde esperimentalak izango den taldeko puntuazioak 7 puntu altuagoak izan dira (498 eta 491 hurrenez hurren).

**Etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleen emaitzak PISA 2009 eta PISA-L ebaluazioetan**



\*PISA-L ebaluazioan bi taldeen arteko aldea adierazgarria da

Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen artean, ebaluazioaren bigarren egunean (PISA-L) hizkuntza aldatu ez dutenek 4 puntu gutxiago lortu dituzte, baina aldea ez da estatistikoki adierazgarria. Hala ere, bigarren eguneko proba euskaraz egin duten ikasleek 27 puntu gutxiago lortu dituzte, eta alde hori adierazgarria da. Datu horietatik honako ondorio nabari hau atera daiteke: **etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleek proba euskaraz egiten dutenean ezin dute euren kompetentzia-maila erakutsi (ez lehen egunean proba gaztelaniaz egiten dutenean bezain ongi).**

### IKERLANAREN HIPOTESIA

*Ikasleen etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza bera denean, emaitzak hobekiaz izaten dira ikasleek eskuratutako ezagupenak etxeko ohiko hizkuntzaz bestelako hizkuntza batean adierazi behar dituztenean baino.*

*Hipotesia egiaztatzeko egoera hauek planteatzen dira:*

*D ereduko ikasleek (euskaraz eskolatutakoek) Irakurketan emaitza apalagoak lortuko dituzte probak etxeko hizkuntzan egiten ez badira, hau da:*

- ✓ *Etxeko hizkuntza euskara duten D ereduko ikasleek probak gaztelaniaz egiten dituztenean konpetentzia-maila apalagoa erakuts dezakete probak euskaraz egiten dituztenean baino.*
- ✓ *Etxeko hizkuntza gaztelania duten D ereduko ikasleek probak euskaraz egiten dituztenean konpetentzia-maila apalagoa erakuts dezakete probak gaztelaniaz egiten dituztenean baino.*

### PISA-L EBALUAZIOKO EMAITZAK

Bi kontrol-taldeetako ikasleek (etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza, hizkuntza bera) bi talde esperimentaletako ikasleek (proba etxekoaz bestelako hizkuntza batean egiten duten ikasleek) baino puntuazio altuagoak lortzen dituzte. Hala eta guztiz ere:

- ✓ *Etxeko hizkuntza euskara duten D ereduko ikasleek proba euskaraz egin dutenean 7 puntu gehiago lortu dituzte gaztelaniaz egin dutenean (talde esperimentala) baino. Aldea ez da adierazgarria. Ikasleek eskuratutako konpetentziak berdin adieraz ditzakete euskaraz eta gaztelaniaz.*
- ✓ *Etxeko hizkuntza gaztelania duten D ereduko ikasleek proba gaztelaniaz egin dutenean puntuazio nabarmenki altuagoa lortu dute. Hau da, lehen eguneko probako emaitzak kontuan izanik, ikasle horiek euren konpetentzia hobeto adierazi dute etxeko hizkuntza erabili dutenean bigarren egunean irakas-hizkuntza (2H) erabili dutenean baino.*

### HIPOTESIAREN EGIAZTAPENA

Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek PISA-L ebaluazioa gaztelaniaz egin dutenean (1 talde esperimentala) lortutako emaitzek ez dute egiaztatzen planteatutako hipotesia, ikasle horiek eta kontrol-taldekoek lortutako puntuazioen arteko aldea ez delako adierazgarria. Ikasle horiek euren konpetentzia-maila berdin adieraz dezakete euskaraz eta gaztelaniaz.

Etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleek PISA-L ebaluazioa euskaraz egin dutenean (2 talde esperimentala) lortutako emaitzek planteatutako hipotesia baieztatzen dute. Ikasleek proba etxeko hizkuntzan (gaztelania) egiten dutenean errendimendu hobea izaten dute proba etxekoaz bestelako hizkuntza batean (euskara) egiten dutenean baino. Talde honek etxeko hizkuntzan erakutsi duen konpetentzia-maila ezin dezake erakutsi bere bigarren hizkuntzan.

### PISA-L EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

Etxean euskaraz hitz egiten duten D ereduko ikasleek (euskaraz eskolatutakoek) euren konpetentzia-maila berdin erakusten dute proba euskaraz egiten dutenean eta gaztelaniaz egiten dutenean.

Etxean gaztelaniaz hitz egiten duten D ereduko ikasleek (euskaraz eskolatutakoek) euren konpetentzia-maila hobeto erakusten dute proba etxeko hizkuntzan egiten dutenean.

Datuek erakusten dute komenigarria dela proba etxeko hizkuntzan egitea, bereziki etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleen kasuan, ezagupenak bigarren hizkuntzan egoki eskuratzen dituzten arren, ezagupen horiek gaztelaniaz erakutsi ahal dituztenean emaitza hobeak lortzen dituztelako.

Emaitzak aztertu ondoren, beste auzi bat planteatu daiteke, alegia, hizkuntza bakoitzak gizartean duen presentziak emaitzei nola eragiten dien; hizkuntzaren gizarte-normalizazio faltaren ondorioz, nazioarteko errendimendu-ebaluazioetan hizkuntza bat ala bestea erabiltzea erabakigarria da etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleen kasuan.

Etxean gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleek proba gaztelaniaz egin dutenean lortutako emaitzak kontuan harturik, ezagupenak bigarren hizkuntzan (euskara) eskuratzea bermaturik dagoela ondorioztatu daiteke. Euren konpetentzia-maila etxeko hizkuntza bezala eta irakas-hizkuntza bezala hizkuntza bera (euskara) duten ikaskideena bezainbestekoa da.


## ERANSKINA

*PISA 2009. Irakurketako emaitzak*

Euskadiko ikasleek PISA ebaluazioko irakurketako proban ondorengo emaitza hauek lortu zituen<sup>27</sup>: Puntuazio orokorra ELGAkoa baino puntu bat altuagoa izan zen. ELGAko herrialdeetako batez bestekoan dago, puntuazio-aldea ez delako estatistikoki adierazgarria.

Irakurketa	K	Batez best.	E.T.	Desb. típ. (E.T)	Adierazgarritasuna
Euskadi	4.768	<b>494</b>	2,9	83,7 (1,8)	=
ELGA	298.454	<b>493</b>	0,48	93,0 (0,3)	

PISA 2009. Irakurketako emaitzak Euskadin eta ELGAN




Aldea ez da adierazgarria %95 konfiantza mailan

Konparazioak egin ahal izateko, ondorengo grafikoan Euskadiko ikasleek PISA 2009 ebaluazioan lortutako batez besteko emaitzak azaltzen dira. D ereduko ikasle guztiek ebaluazio horretan lortutako emaitzak ere azaltzen dira, eta, baita ere, ondorengo PISA-L ikerlanean parte hartu zuten ikasleen azpi-laginak PISA 2009 ebaluazioan lortutako emaitzak.

<sup>27</sup> Informazio gehiago eskuratzeko, ikus "PISA 2009 Euskadi Ebaluazioaren txostena" [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

**PISA 2009. Euskadiko emaitza, D ereduko emaitzak eta ikerlanean parte hartu duen azpi-lagineko emaitzak**



Puntuazio-aldeak ez dira estatistikoki adierazgarriak. Bai D ereduko ikasleen emaitzak bai PISA-L ikerlaneko azpi-lagineko ikasleen emaitzak PISA 2009 ebaluazioko Euskadiko batez besteko orokorrean daude.

## BIBLIOGRAFÍA

Abedi, I., Lord, C., and Hofstetter, C. (1998): Impact of selected Background variables on students' NAEP Math performance. Los Angeles UCLA Center for the Study of evaluation/National center for research on evaluation, standards and student Testing.

Alberta Education (1992): Language of Testing Study Report. Students First-Student Evaluation, Alberta.

Ascher, Carol: La evaluación de los alumnos bilingües para su ubicación en el sistema educativo e instrucción. ERIC/CUE Digest n° 65. Claeringhouse on Urban Education, New York, N.Y.

Brislin, R.W. (1970): "Back-translation for cross-cultural research", Journal of Cross-Cultural Psychology, 1(3), 185-216.

Canale y Swain (1980): "Theoretical bases of communicative approaches to second language teaching and testing" Applied Linguistics, vol I, n°1 (1-47) (traducción al castellano (1996): "Fundamentos teóricos de los enfoques comunicativos. La enseñanza y la evaluación de una segunda lengua I y II", en Signos n° 17 y 18).

Elosua, P., López, A (1999): "Neurketa-tresna psikopedagogikoen euskaratzea eta iteraren funtzionamendu diferentziala", Tantak n° 21.

Isei-Ivei. "Ebaluazio Diagnostikoa 2009.Emaitzen txosten orokorra."DBH 2. Maila eta LH 4. maila. Martxoa 2010. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

Isei-Ivei- Matematikari eta zientziei buruzko nazioarteko abaluzioa. TIMSS 2003 Euskadi. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

Isei-Ivei TIMSS 2007. Matematikako eta Zientzietako emaitzak Euskadin. Apirila 2008 [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

Isei-Ivei. PISA 2003. Ebaluazioaren Lehen Txostena. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

Isei-Ivei. PISA 2006. Ebaluazioaren azken txostena. Euskadiko emaitzak. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

Isei-Ivei. PISA 2009 Euskadi. Lehenengo txostena. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

Isei-Ivei (2004) Probaren Hizkuntzak Ebaluazioen emaitzetan duen eragina. Irakaskuntza elebiduneko ikasleek nazioarteko probetan duen errendimendujari buruzko ikarketa. . [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

Isei-Ivei. Lehen Hezkuntzako ebaluazioa 2004. Laburpen exekutiboa. Ondorioak eta hobetzeko proposamenak. Apirila 2006

Kiplinger, V.L., Haug, C.A., and Abedi, I. (2000): A Math assessment should assess Math, not reading: one state's approach to the problem. Paper presented at the 30<sup>th</sup> National conference on large scale Assessment, Snowbird, UT.

Rivera, C., and Stansfield, C.W. (2001): The effects of linguistics simplification of science test items on performance of limited English proficient and monolingual English-Speaking students. Paper presented at the annual meeting of the American Educational Research Association. Seattle, WA.

Siguán Soler, M (1999): Conocimiento y uso de las lenguas, Opiniones y actitudes n° 22, Centro de Investigaciones sociológicas, Madrid.

Stansfield, Charles W. (1996): Content assessment in the native language. Practical Assessment. Research & Evaluation, vol 5 (n° 9)

Stansfield, Charles W. (1997): Experiences and Issues related to the Format of Bilingual Tests: Dual Language Test Booklets versus Two Different Test Booklets. Reports-Evaluative. From ERIC Database.

Stansfield, Charles W. (2002): Linguistic simplification: a promising test accommodation for LEP students? Practical Assessment. Research & Evaluation, vol 8 (nº7)

Stubbe Kester, E y Peña A.D. (2002): Language ability assessment of Spanish-English bilinguals: future directions Practical Assessment. Research & Evaluation, vol 8 (nº4).

Texas Education Agency (2000): Study of possible expansion of the assessment system for limited english proficient students. A report to the 77<sup>th</sup> Texas Legislature from the Texas Education Agency. December 1, 2000.